

Ikerketa feministaren ikuspegiak eta askapenerako ekarpenak

Martha Patricia Castañeda Salgado

Emozioak, epistemologia eta ekintza kolektiboa indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan. Ikerketa feministaren esperientzia bati buruzko gogoeta laburra

Diana Marcela Gómez Correal

Lan-Koadernoak / Cuadernos de Trabajo • Hegoa, 79. zbk., 2019

Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua



Erredakzio Kontseilua

Zuzendaria: Patxi Zabalo
Idazkaria: Mari José Martínez
Diruzaina: Eduardo Bidaurratzaga
Kideak: Elena Martínez Tola
Irantzu Mendia Azkue
Gloria Guzmán Orellana
Amaia Guerrero

Argitalpen Kontseilua

Alberto Acosta. FLACSO, Quito (Ekuador)
Íñaki Bárcena. Parte Hartuz, UPV/EHU
Roberto Bermejo. UPV/EHU
Carlos Berzosa. Madrilgo Unibertsitate Konplutensea
Cristina Carrasco. Bartzelonako Unibertsitatea
Manuela de Paz. Huelvako Unibertsitatea
Alfonso Dubois. Hegoa, UPV/EHU
Caterina García Segura. Pompeu Fabra Unibertsitatea
Eduardo Gudynas. CLAES, Montevideo (Uruguay)
Begoña Gutiérrez. Zaragozako Unibertsitatea
Yayo Herrero. Ecologistas en Acción
Mertxe Larrañaga. Hegoa, UPV/EHU
Carmen Magallón. Fundación Seminario de Investigación para la Paz
Carlos Oya. School of Oriental and African Studies, University of London (Erresuma Batua)
María Oianguren. Gernika Gogoratuz
Jenny Pearce. University of Bradford (Erresuma Batua)
Itziar Ruiz-Giménez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
Bob Sutcliffe. Hegoa, UPV/EHU
José M^a Tortosa. Alacanteko Unibertsitatea
Koldo Unceta Satrustegui. Hegoa, UPV/EHU

Hegoa Lan-koadernoak/Cuadernos de Trabajo aldizkako argitalpena da, Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoak –Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketen Institutuak–, 1989. urtetik aurrera argitaratutako emandakoa. Diziplina arteko eta diziplina anitzeko ikuspegia izanik, aldizkari honek argitaratzen dituen azterketak ikerkuntza original, empiriko edo teoriko baten emaitza dira, eta giza garapenaren eta lankidetzaren eraldatzailearen eremuko arazo, esparru analitiko eta jarduerari buruzko alderdiak lantzen ditu.

Hegoa Lan-koadernoak/Cuadernos de Trabajo aldizkariak izaera monografikoa du, urtean hiru aldiz argitaratzen da, eta ale bakoitza lan zehatz bati eskaintzen zaio, beste aldizkari batzuetako artikuluetan ohikoa dena baino hedadura zabalagoz. Edizio elektronikoa Hegoa Institutuaren webgunean (<http://www.hegoa.ehu.eus>) eta EHUren webgunean (<http://www.hegoa.ehu.eus>) eskuragarri dago.

Ikerketa feministaren ikuspegiak eta askapenerako ekarpenak

Egilea: Martha Patricia Castañeda Salgado
Emozioak, epistemologia eta ekintza kolektiboa indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan. Ikerketa feministaren esperientzia bati buruzko gogoeta laburra
Egilea: Diana Marcela Gómez Correal
Itzulpena: Maku Florentino
Hegoa Lan-Koadernoak/Cuadernos de Trabajo • 79. zbk. • 2019
Lege-gordailua: Bi-1473-91
ISSN: 1130-9962
EISSN: 2340-3187



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa.
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Faxa: 945 01 42 87

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Hegoa Lan-Koadernoak/Cuadernos de Trabajo aldizkarian argitaratzen diren artikuluz guztiak, Creative Commonsen lizentzia honekin argitaratzen dira:



Reconocimiento-NoComercial-Sin
ObraDerivada 3.0 España. Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzailea:



Lan-Koaderno hau GLEAK finantzatutako proiektu honen barruan egin da: Bake Kritikoaren Eraikuntza: gatazkarekiko sentikorra den euskal lankidetzaren baterako marko kontzeptual eta metodologikoa, PRO2016K3010.

Ikerketa feministaren ikuspegiak eta askapenerako ekarpenak

Martha Patricia Castañeda Salgado

Emozioak, epistemologia eta ekintza kolektiboa indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan. Ikerketa feministaren esperientzia bati buruzko gogoeta laburra

Diana Marcela Gómez Correal

Martha Patricia Castañeda Salgado. Antropologian doktorea eta Mexikoko Unibertsitate Autonomoko (UNAM) irakasle titularra. UNAMeko Zientzia eta Humanitateen Diziplinarteko Ikerketen Zentroko Ikerketa Feministarako Programaren koordinatzailea. Hainbat argitalpenen egilea, besteak beste: *Metodología de Investigación Feminista*, 2008; eta *Identidades. Teorías y Métodos para su análisis* (Laura Loeza-rekin batera egina), 2011.

Diana Marcela Gómez Correal. Antropologian doktorea eta Historian graduondoa. Kolonbiako Los Andes Unibertsitateko Garapenari buruzko Ikasketen Disziplina Anitzeko Zentroko (CIDER) irakaslea. Kolonbiako hainbat gizarte-mugimendutan aritu izan da (emakumeena eta feminista, bakearen aldekoa, giza eskubideena eta biktimena). Bere lan-eremuak honakoak dira, besteak beste: generoa, feminismoa, deskolonialitatea eta botereari buruzko teoriak; gizarte-mugimenduen, emozioen eta memoriaren azterketa; eta egiturazko indarkeria, bakea eta trantsiziozko justziaren ulermena. Hainbat argitalpenen egilea da, horien artean: *De amor, vientre y sangre: politización de lazos íntimos de pertenencia y cuidado en Colombia*, 2016.



Jasoa: 2019/02/01
Onartua: 2019/04/12

Laburpena

Lehen artikulua ikerketa feministaren ezaugarri buruzko zenbait gogoeta biltzen ditu, gaztelaniaz hitz egiten den herrialdeetan egiten diren ikerketek nabarmentzen dituztenak azpimarratuz. Erdigunean jartzen den interesa teoriaren, ikerketaren eta praxiaren arteko harremanari heldzea da, eta, hortik abiatuta, premisa hau gauzatzea: ikerketa feminista akademikoaren eta zientifikoaren helburu nagusia izan dadila emakumeen askapenean lagunduko duten ezagutzak sortzea.

Bigarren artikulua indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan ematen diren eraldaketa sozialeko prozesuetan emozioak aztertzen ditu. Ikerketa militante, feminista eta deskolonial batetik abiatuta, eta Kolonbian estatuak eta paramilitarismoak biktimizatutako subjektuetan arreta jarritz, autoreak hiru ardatz lantzen ditu. Lehenik, desagerrarazi eta erail dituzten pertsonen senidetarteko politizazio prozesuetan emozioek bete duten zeregina ulertzeko metodologia aztertzen du. Bigarrenik, politizazioan eta sufrimendu sozialean emozioen rolari buruz egindako zenbait aurkikuntza aurkezten ditu. Azkenik, indarkeriari lotutako ikerketa batean emozioen azterketari ekiteak eragindako ikaskuntza etiko, metodologiko eta intimoei buruzko gogoeta egiten du. Autorearen arabera, halako gaiei heldzearekin batera, emozioetara hurbiltzeko moduari buruzko hausnarketa epistemologiko bat egin beharra dago, bai eta emozioek ezagutzaren ekoizpenean zein ikertzailean dituen eraginei buruz ere. Aldi berean, autorea horrelako ikerketek parte-hartzaile diren guztien zaintzaren etika bat barneratzearen aldekoa da.

Gako-hitzak: Ikerketa feminista, askapena, indarkeria, emozioak, dekolonialitatea.

Resumen

El primer artículo expone un conjunto de consideraciones acerca de las características de la investigación feminista, con énfasis en las que se plantean en países de habla hispana. El interés central es retomar la relación entre teoría, investigación y praxis, a partir de la cual se procura llevar a la práctica la premisa de que el principal objetivo de las indagaciones feministas académicas y científicas es generar conocimientos que contribuyan a la emancipación de las mujeres.

El segundo artículo se centra en el estudio de las emociones en procesos de cambio social que se dan en contextos de violencia socio-política. Partiendo de una investigación militante, feminista y descolonial, con énfasis en sujetos victimizados por el Estado y el paramilitarismo en Colombia, la autora se enfoca, en primer lugar, en la metodología empleada para comprender el rol de las emociones en los procesos de politización de familiares de personas desaparecidas y asesinadas; en segundo lugar, presenta algunos de los hallazgos en torno al rol de las emociones en la politización y en la experiencia del sufrimiento social; y en tercer lugar, reflexiona sobre los aprendizajes éticos, metodológicos e íntimos que implicó indagar sobre las emociones en una investigación relacionada con violencia. La autora argumenta que el abordaje de estos temas debe estar acompañado de una reflexión epistemológica sobre cómo aproximarse a las emociones, y de sus implicaciones en la producción de conocimiento y en quien investiga. Al mismo tiempo, propone acompañar estos trabajos de una ética del cuidado de todas y todos quienes participan en las indagaciones.

Palabras clave: Investigación feminista, emancipación, violencia, emociones, decolonialidad.

Abstract

The first article contains a set of considerations about the characteristics of feminist research, with an emphasis on those that arise in Spanish-speaking countries. The central interest is to return to the relationship between theory, research and praxis, from which it is possible to put into practice the premise that the main objective of academic and scientific feminist research is to generate knowledge that contributes to the emancipation of women.

The second article focuses on the study of emotions in processes of social change that occur in contexts of socio-political violence. Starting from a militant, feminist and decolonial research, with emphasis on subjects victimized by the State and paramilitarism in Colombia, the author focuses, first, on the methodology used to understand the role of emotions in the politicization processes of relatives of missing and murdered people; second, on some of the findings about the role of emotions in the politicization and experience of social suffering; and thirdly, on the ethical, methodological and intimate learning that involved inquiring about emotions in an research related to violence. The author argues that the approach to these issues should be accompanied by an epistemological reflection on how to approach emotions, and their implications both in the production of knowledge and in the researcher. At the same time, the author proposes to accompany these works with an ethic of caring for all those who participate in the research.

Key words: Feminist research, emancipation, violence, emotions, decoloniality.

Aurkibidea

Ikerketa feministaren ikuspegiak eta askapenerako ekarpenak

Martha Patricia Castañeda Salgado

Sarrera	7
1. Ikerkuntza feministaren egungo ikuspegiak	9
1.1. Protagonisten ikuspegiak	9
1.2. Ikuspegi epistemologikoak	9
1.3. Kokatze teoriko eta metodologikoak	10
2. Ikerketa feministaren ekarpenak eta dilemak	15
3. Ikerketa feminista, askapenerako baliabidea	18
4. Epilogo gisa	20
Bibliografia	21

Emozioak, epistemologia eta ekintza kolektiboa indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan. Ikerketa feministaren esperientzia bati buruzko gogoeta laburra

Diana Marcela Gómez Correal

Sarrera	25
1. Abiapuntua: esperientzia	26
2. Emozioak, politika eta sufrimendua Kolonbiako subjektu biktimizatuen ibilbideetan	28
3. Martxan zeharreko ikaskuntzak	31
4. Ondorio irekiak	34
Bibliografia	35

Ikerketa feministaren ikuspegiak eta askapenerako ekarpenak

Martha Patricia Castañeda Salgado

Sarrera

XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera, feminismoa sendotu egin zen eraldaketa sozialerako erreferentzia gisa. Feministak lekua hartzen joan ziren jendarteko hainbat jokalekutan, salaketa-eremuetatik hasi eta eremu akademikoetaraino. Prozesu horrekin batera, ezagutza enpirikoa eta teoria sortzeko eremu espezializatu gisa finkatu zen feminismo akademikoa. Horretarako, ikerketa feministak bere espezifikotasuna doitu behar izan zuen, eta hainbat eta hainbat iturritatik zetozen ekarpenak hartu behar izan zituen azalpen sakonak emateko hasiera-hasieratik interesgune izan zuenari buruz: emakumeen egoera ulertzea, ezaugarritzea, kontzeptuz hornitzea eta, ezagutza sendoak sortutakoan, desberdintasun sozialik sakonenaren (eta agian antzinakoenaren), hots, emakumeak eta gizonak bereizten dituen desberdintasunaren, euskarri diren baldintzak aldatzeko proposamenak lantzea.

Nahi hori hain zen handia ezen feminismoaren konplexutzea eragin baitzuen. Handik gutxira, emakumeen arteko desberdintasunak agerian jartzen hasi ziren feminismo homogenezatzaile batekin identifikaturik sentitzen ez zirenek; feminismo hori ez baitzen heltzen azaltzera baldintza sozio-historikopartekatu baten eta genero-desberdintasunak genero arteko desberdintasun sakonak ere eragiten zituzten egoera konkretuen arteko konbinazio zailak. Emakume talde bakoitzak (eta aurrerago beste subjektu sexogeneriko menpekotuek) erabili zituen errebindikazio espezifikoaren auto-ordezkapenaren eta azalpenaren bilaketaren ondorioz sortu ziren feminismoak; eta horrela, baldintza sexogenerikoa bestelako menderaketa-baldintza sozial batzuekin egituratzearen ondoriozko desberdintasun eta zapalkuntza ugarien ulermen/azalpenean sakontzearen premia sustatzen lagundu zuten.

Ikerketa feministak darabilen egungo testuinguru etako bat da hori; emakumeengan (beste subjektu menpekotu batzuk baztertu gabe) fokalizaturik dagoen ezagutzen sorkuntza-prozesu gisa ulertua, egungo jendartearen oraina eta geroa zehazten duten kontraesan sakonetan murgilduta. Prozesu hori ikuspegi hegemonikoak apurtzen dituzten kontzeptualizazio feministetan eta metodologiaren garapenean oinarritzen da, helburu batzuk lortzeko, hala nola: ikerkuntzan androzentrismoa jausaraztea; ikerketen oinarritzko planteamenduetan agertzen den sexismoaren, arrazakeriaren, klasismoaren, etnizismoaren eta bestelako diskriminazio-moduen adierazpenak agerian uztea; subjektu artekootasunean oinarrituriko ezagutzen sorkuntzarako prozesuak ezartzea; zientziaren eta akademiaren erroto eraldakuntzan laguntzea; zientzia jardun sozial gisa eta ezagutza zientifikoa gizakion bizitzaren gogobetetze faktoreen artean sozializatu beharreko produktu gisa berreskuratzea; zientziaren eta ikerkuntzaren izaera instrumentala haustea emakumeen epistemofilia berreskuratzeko; eraldaketa soziala nahi utopikoa ez ezik, feministek diharduten espazio guztietan bultzatzea daitekeela erakustea (Castañeda 2008).

Beste norabide batean, hainbat tokitako ikerlari feministek zalantzan jarri zuten botere zientifikoa herrialde industrializatuetan metatzea eta ezagutza euro-estatubatuar-zentrikoaren hegemonia,

eta adierazi zuten oso garrantzitsua dela “mendeko” (baina ez horregatik ezagutza metropolitara edo inperialistaren subsidiario soil) herrialdeetan garatzen den zientziari eta ikerkuntzari autoritate akademikoa onartzea. Kritika horietatik abiatuta, feministek zientziari egindako kritikaren eztabaida nabarmen deslokalizatu da, eta Hego globalean kokatuta dauden egileen ahotsak eta argudioak gehitu zaizkio (Espinosa, Gómez eta Ochoa 2014).

Abiapuntu horiekin, ikerkuntza feministaren egungo ikuspegien, haren ekarpenen eta askapenerako baliabide gisa bereizi izanaren inguruko hainbat gogoeta jasoko ditut jarraian. Bi ohar nagusi hartu ditut oinarri: a) testu akademikoak aipatzea, eta b) gaztelaniaz mintzo diren egile latino-amerikarren idazkiak bereziki nabarmentzea. Erreferentziak ez dira osoak, baina bai ondo adierazten eta ilustratzen dute gure gizartearen ezagutza sakonagoa lortzeko, ikerlari feministen presentzia eta ekarpenak nabarmen zabaldu direla.

1. Ikerkuntza feministaren egungo ikuspegiak

Azkeneko hamarkadetan, ikerkuntza feministaren garapenak haren ekarpenen gero eta onarpen zabalagoa ekarri du. Hainbat modutan egin dira ekarpenok, baina nik hiru lan ildo nagusi hartu ditut: protagonisten ikuspegiak, ikuspegi epistemologikoak eta kokatze teoriko-metodologikoak.

1.1. Protagonisten ikuspegiak

Gaur egun, ikerkuntza feministak dialogikoak izan ohi dira. Besteak beste, ikerkuntzan esku hartzen duten subjektuen posizioak –horiek hierarkia sozialak berregiten dituztenean– zehazten dituzten botere-harremenen izaera androzentrikoaren kuestionamendu sakonaren emaitza da hori. Egoera hori iraultzeko modu desberdinen formulazioan, ikerlari feministak kokatzeko hiru aukera, gutxienez, bereiz daitezke.

Horietako lehenengoan ikerketa egiten duenaren posizioa lantzen da, prozesuaren subjektu aktibo den aldetik; eta ikerkuntzaren xede diren pertsonak ere aintzat hartzen dira, aztergaiei dagokienez, akademikoak ez bestelako ezagutzak dituzten subjektu diren aldetik. Ekimen epistemikoa ikerketa egiten duenaren esku jarraitzen du, harreman horizontalagoak ezartzeko ahalegina egin arren. Aukera hori erakunde akademikoen esparruan egiten den ikerkuntzarekin lotu ohi da.

Bigarren aukeran, ikerketa egiten duenaren eta ezagutza-premiak eta helburuak zehazten dituen talde, kolektibo edo erakunde sozialen baten arteko aurretiazko lankidetzaren harremanen ondorioa da ikerketa. Modalitate horretan, lan-kidetzaren ikerketa/ekintza edo ikerkuntza parte-hartzaile prozesuak gauzatzen dira, eta horietan, ikerketa egiten duen pertsonak duen ezagutza sortzeko edo sistematizatzeko gaitasuna premia politiko edo praktikoa zehatzak dituzten subjektu edo eragile sozialen zerbitzuan jartzen du. Prozesu horretan, alderdi biek onartzen diote elkarri ordena politiko eta hegemonikoa aldatzeko interesak eta intentzioak partekatzen dituzten subjektu partikular direla.

Hirugarren aukera da ikertzen duten talde sozial bereko kide diren ikerlariak egindakoa. Horretan, ohiko ezagutza akademikoak deseraikitze prozesuak garatzen dira ezagutza propioak balioesteko, eta horrek ikerketa modu ez kanonikoak dakartza.

Hiru aukerak ezagutzen sorkuntzan androzentrismoa, klasismoa eta etnozentrismoa deseraikitze modu desberdinak eta ikerkuntza subjektu-arte prozesu gisa proposatzeko modu desberdinak dira. Ikuspegi epistemologikoei hain lotuta dauden akademia, ikerkuntza eta aktibismo feministaren arteko harremana ulertzeko modu ezberdinak ere badira.

1.2. Ikuspegi epistemologikoak

Nahiko maiz aipatzen dira ikerkuntza feministako ikuspegi epistemologikoak Sandra Hardingek (1996) proposatutako sailkapenarekin; berak bereizi egin zituen ikuspuntuaren teoria feminista, enpirismo feminista eta posmodernismo feminista, ezagutza sortzeko hiru orientabide nagusi gisa (Harding, 1996; Blazquez 2010). Une horretan, emakumeen agente epistemikoa onartzea

xede zuen ikuspegi gisa azaldu zuen *feminist standpoint* deiturikoa; enpirismo feminista “okerreko zientziaren” zentzagarri gisa, eta posmodernismo feminista emakumeen pluraltasuna aintzat hartzen duen jarrera gisa. Hiru kasuetan, kritika sakona egiten die positibismoaren eta neopositibismoaren planteamendu nagusiei; bereziki objektibitatearen eta balorazio-neutraltasunaren ideiei. Orduz geroztik, ikerketa feministek zabaldu egin dituzte haien ibilbideak beste jarrera feminista batzuen garapen teorikoak eta kokapen politikoak indartu diren heinean. Horrela bada, eremu akademiko anglosaxoian *critical racist theory* eta poskolonialismoa, metropoliatan lan egiten duten gutxiengoetako adituek bizi izandako esperientzian oinarrituta, supremazismo inperialistaren bi alderdi zorrotz –arrazakeria eta kolonialismo intelektual– desegiten dituzten ikuspegi epistemologiko gisa jotzen dira (Hesse-Biber 2012; Gannon eta Davies 2012; Mendoza 2014; Suárez eta Hernández 2008).

Latinoamerikan ezinbestekoa da, gainera, jarrera dekoloniala ere bereiztea; jarrera horrek mendeetako menderakuntzak –kanpokoak nahiz barrukoak– ezarritako pentsamenduaren kolonialitate modu desberdinekin errotik apurtzea aldarrikatzen du. Horiek azpian hartu egin zituzten, baina ez desagerrarazi, jatorrizko herrien eta esklabotzaren ondorioz asimilatutako herrien pentsamoldeak eta ezagutzak; eta horiek, birbaloratze prozesuan dauzkate euren intelektualek. Prozesu horretan nabarmendu egiten dira emakumeak, bizitzaren zaintza eta babesarekin loturiko ezagutza multzoa eta oinarritzko jardunbideak jagon zituztelako (Marcos 2010; Bidaseca 2016; Bidaseca eta Vázquez 2011; Leyva *et al.* 2015).

Ikuspegiak zabaltzearen ondorio garrantzitsuenetako bat epistemologia feministan funtsezkotzat jotzen ziren prozeduren kritika da; hau da: emakumeen bisibilizazioa,; genero-baldintzaren desnaturalizazioa eta politika patriarkalak inbisibilizazioa eta subjektu eta prozesu soziokulturalen naturalizazioa finkatzeko erabili zituen prozesuen historizazioa. Kritika horren ondorioz, beste subjektu generizatu eta arrazializatu batzuk txertatu ziren; beraz, prozedura horiei ikerkuntzaren arrazializazio-gabetzea eta heteronormatibotasunarekin apurtzea gehitu zaizkie.

1.3. Kokatze teoriko eta metodologikoak

XXI. mendean igaro diren urte hauek feminismoaren suspertzearen eta haren adierazpideen ugaltzearen jokaleku bihurtu dira. Feminismo akademikoaren eremuan hiru joeren aldiberekotasuna ikusten da: jarrera kritikoen indartzea, “post” jarreraren dibertsifikazioa eta beste subjektu eta beste mobilizazio sozial batzuekin egituratzea ahalbidetzen duten erreferente gisa kolektiboa eta komunitarioa erreibindikatzeko duten feminismoen jarreraren automugatzeta.

Kokatze horiek gertatzeko, lotura egokiak ezarri behar izan dira ohiko metodologiaren orientazio androzentrikoak berregiten dituzten prozedura estandarizatuen aurrean, alternatibak eskaintzen dituzten postulatu teorikoen eta hurbilketa metodologikoen artean. Honako hauek dira proposamen horietako batzuk:

Gorputza jokoan. 1990.eko hamarkadatik aurrera, intersubjektibitatearen ideia gero eta modu konplexuagoan landu izan da, bereziki ezagutza kokatuaren nozioarekin lotu zen unetik aurrera. Prozesu horretan, emakume ikerlari askok balorazio-neutraltasunaren asmoa duen objektibismoa atzean nola utzi galdetu diote bere buruari, ikusita aztertzen dituzten egoerek emakumeek bizi dituzten desberdintasun sozial sakonenak islatzen dituztela; ahaztu gabe, bestelako subjektu menderatu batzuekin ere desabantaila sozialak partekatzen dituztela. Gogoeta horiek eragin dituen gaietako bat indarkeria da –horren adierazpen guztietan–; bereziki, menderatze modu zorrotzenen genero-inplikazioekin duen lotura aztertzen denean. Arazo horren aurrean, emakume

ikerlarien eta menderatze-prozesu horiek zuzenean bizi dituzten subjektuen arteko erabateko identifikazioak, jarrera horri “gorputza jokoan jartzea” deitzea eragin du; harreman sakon bat izendatzeko, zeinetan ikerlaria ikertzen ari den taldeen azterlari, aktibista, laguntzaile eta bertako kide gisa murgiltzen den (Fulchiron 2015; Gómez 2015).

Senti-pentsatu. Gorputzaren eta pentsamenduaren, arrazoiaren eta emozioaren arteko bereizketa binarioarekiko –eremu akademiko eta zientifikoan zientzian izan beharreko objektibitatearekin lortzen zena– kritika izan zen epistemologia feministaren lehenengo gai apurtzaileetako bat. Subjektibotasun femeninoak ezagutza-baliabide gisa duen papera defenditu zuten egile nabarmen askok (Rose 1983; Smith 1990; Hierro 2001). Latinoamerikan gero eta ikerlari indigena gehiago izateak aberastu egin du kritika hori bereizketa hori pentsamendu patriarkalaren ezaugarri gisa ez ezik pentsamendu kolonialaren ezaugarri gisa ere identifikatu duelako. Horren aurrean, haietako batzuk esanahi berria eman diote *senti-pentsatu* nozioari, bereizketarik ez duen kosmobisio batetik ezagutza sortzeko moduaren adierazpide gisa; bereizketarik ez, baina, aitzitik, batasun kontzeptzioa dauka, bai kolektiboan norbanakoari bai gorputz/pentsamenduari dagokienez, non bi prozesuak gertatzen eta gainjartzen diren (Méndez 2018). Nozio horrek ikerkuntzan dituen inplikazioak oso sakonak dira; izan ere, norbanakoak eta haien kolektibitateak osatzen dituzten dimentsio eta prozesu ugariak batzen dituen ikuspegia aplikatzeko gaitasuna behar da horretarako.

Egiturak garrantzia du. Kapitalismoaren egungo unearen gordintasuna emakumeen esplotazio eta autoesplotazioaren forma ugarietan islatzen da; baita “esklabotza forma berriak” deitu izan den horretan ere (Cobo 2011). Kontzeptuari eta metodologiari dagozkion terminoetan, emakumeen nahien eta izateko aukeren eta haiek itotzen dituzten egiturazko indarren arteko tentsio etengabea dagoela egiaztatzeak “gaindituztat” jotzen ziren ikuspegi feministak berrindartzea ekarri du; lanaren sexuaren araberako banaketan eta ugalketa sozialean zentratutakoak, kasu.

Desjabetzearen bidezko metaketa aztergai eta eztabaida teorikoetako zio izan da ezagutzaren hainbat arlotan adituak diren ikertzaile feministentzat, eragiten dituen ondorio larriengatik: laneko esplotazioa, erkidegoen desegituraketa, lurgabetzea, kalte ekologikoak eta talde ekonomiko hegemonikoen berregituraketa. Gaiari buruzko lan asko eta asko emakumeekin eta haien erkidego, talde edo erakundeekin ikuspegi ekonomiko, juridiko, antropologiko eta psikologikotik egindako akonpainamendu-prozesuen ondorioa dira, bai emakume akademikoen aldetik bai aktibista eta giza eskubideen defendatzaileen aldetik (Gutiérrez 2014; Gargallo 2012).

Beste ikerketa-ildo nagusiak lotura dauka zaintzaren ekonomiaren eta ugalketa sozialaren arteko harremanarekin; bai lan-merkatuari, joera soziodemografikoei zein migrazio-prozesuei dagokienez. Horren ildoan, lanaren sexuaren araberako banaketa patriarkal-kapitalistaren jarraitutasuna nabarmentzen da; bai eta emakumeen gorputzen eta bizitzen gainean ezartzen den pisu handia ere (Federici 2013; Carrasco eta Díaz 2017; Herrera 2012). Ekonomialari feministak ikerlan asko eta oso argigarriak egiten ari dira kapitalak egungo fasean darabilen dinamikaren parte gisa desberdintasun soziala berregiteko modu espezifikoei buruz; eta arreta berezia jarritz emakumeen esplotazio moduei, aurrekontuek genero-ikuspegia kontuan hartzen duten ala ez eta makro eta mikroekonomiaren arteko desfaseen azterketari (León 2011; González eta Rodríguez 2017).

Norbera lehenengo pertsonan aipatzea. Azken hamarkadetan, diskurtsoak garrantzi handia hartu zuen izaera kualitatiboko ikerkuntzan. Emakumeen esperientzia dokumentatzeko interesaren ondorio metodologiko gisa, informazio bilketarako garrantzitsu bihurtu ziren lengoia eta diskurtsoa, baina baita ere subjektuaren oinarritzko ezaugarri baten ulermen hermeneutikoan

sakontzeko, alegia, norbere burua izendatzeko, lengoaia propioa edukitzeko eta entzunaraz daitekeen ahotsa edukitzeko gaitasuna. Baliabide hori findu izanari esker, “ahotsik gabekoei ahotsa emateko” gurarietatik ikuspuntu dialogikoetara eta autoenuntziatziora igaro ahal izan da. Kadentzia horretan, autoenuntziatio ariketa hori gauzatu zuten lehenengo feminista haiei feminista lesbianak, beltzak, afro-ondorengoak, indigenak, musulmanak atxiki zitzaizkien; bestela esanda, gaur egun, munduan, feminismoaren joera desberdinak osatzen dituzten intelektual, politikari eta aktibistak (Meza eta Zavala, 2015).

Eskubideen subjektu gisa posizionatzea. Feminismo akademiko eta zientifikoaren beste ildo batzuetatik, emakumeen indibidualtasunari ematen zaion garrantziaren eta egiturazko arazoan arteko polarizazioak binarismoak sortu eta berregin zituen. Hala ere, emakumeen hiritartasunaren ulermenean eta defentsan sakondu izanak eta emakumeak eskubideen subjektu direla (auto)onartzeak, bitartekaritzak identifikatzen lagundu du norbanakoen eta Estatuaren arteko harremanean, eta ikerketarako baliabide bilakatu dira, bereziki erakundeen eta haien egiteko moduen azterketa kritikora bideratzen den horretarako. Estatuaren aurrean kritikoa den jarrera feministaren berezitasun bat izan da haren izaera patriarkala, klasista, arrazista, heteronormatiboa eta bortitza agerraraztea (Valencia 2016); bereziki nabarmenduz haren ekintzak eta omisioak feminizidioaren euskarri gisa (Lagarde, 2011). Pentsamenduaren eta moralaren kutsu erlijiosoko ideologia judeo-kristaua gizarte patriarkalera eta Estatura bideratu dela ere ohartarazi dute; eta horrela ulertzen da, alde batetik, instituzioen ekintza askoren kasuan ageri den moral bikoitza eta, bestetik, politika publiko asko eta askoren zantzu androzentriko eta misoginoak (Sagot 2017).

Genealogia feministetan inskribatzea. Ikerketa feministaren ekarpen handietako bat ezagutza feministei balioa ematea eta haren genealogiak identifikatzea izan da. Horri esker, egile feministen lanak baimendu eta legitimatu egin dira; haien ondarea aintzat hartzen da eta, aldi berean, apurka-apurka aintzat hartzen hasiak dira ikerketa feminista egiten dutenen sormena eta berrikuntza ere, akademian daudenen eta laneko eremu horretatik kanpo ere ezagutza feminista sortzen eta sistematizatzen dutenen artean sareak ehundu nahirik. Sare horiei esker, zenbait gairen ikerkuntzan izandako aurrerapenak koka daitezke, bai eta sortzen diren interesak testuinguruan kokatu ere (Bach 2010; Ciriza 2012).

Gure historia propioa idaztea. Beste funtsezko kokatze teoriko-metodologiko bat gure historia propioa idazteko premia da. Horretan, iragana arakatzeko duten prozedurak hedatzen dira, emakume aitzindarien bila, herrialde edo eskualde bakoitzean emakumeen kontra eragindako bidegabekeriak azalatu eta salatu zituzten lehenengo emakumeen eta haiek utzi zizkiguten kontzeptu-ekarpenen bila. Baina historia gertatu berria dokumentatzeko interesa duten feministak ere badira; markatzen gaituzten prozesu eta antolakuntza esperientzia anitzak dokumentatu nahi dituztenak, arreta berezia jarri gaur egun feminismoen ezaugarri diren jarrerak hautatu dituztenei (Curiel 2007; Valdivieso 2007; Tarducci, 2018).

Subjektu sexual gisa errebindikatzea. Emakumeen gorputzen eta sexualitateen gainean eragiten diren botere-jardun ugarien, amatasunaren bidez mendean hartzeko grina barne, eta emakumeak autodefinitzeko eta menderatze mota guztiez askatzeko entitate eta jardunbide horiek ezinbesteko gisa (bir)bereganatzearen arteko oposizioari buruzko ikerketa etengabeko jarduna izan da ikerkuntza akademikoaren eta jardun feministen arteko loturan. Botere androzentrikoaren oinarriko gauzapena emakumeen gorputzak eta sexualitateak kontrolatzen direnean gertatzen dela jabetzeak askatasuna nola urratzen diguten sakonki ulertzeko ildo bat zabaldu zuen; hortaz, gertaera unibertsal eta transhistorikoa den edo, aitzitik, espazioan eta denboran koka ote daitekeen jakitera bideratutako ikerketek arau eta moral sexualen konbentzionalitatearen eta arbitrariotasunaren arteko jokoak ulertzea ahalbidetu zuten. Hortik abiatuta, sexuaren, generoaren

eta sexualitatearen arteko harremanaren inguruko hainbat kontzeptualizaziotan oinarrituriko bilaketa-ildo asko zabaldu ziren; horietako asko, sexu eta ugalketa alorreko eskubideak (berez, aztergai direnak), autoesleitutako identitateetan oinarrituriko askotariko herritartasunen eraketa, eta gorputza eraikuntza kultural gisa erreibindikatzeko, ezagutza berebiziko baliabide bihurtzera bideratuak (Rostagnol 2016; Muñiz 2010).

Nor garen, nolakoak garen. Aurreko puntuei buruzko ikerketekin batera, lehenik eta behin emakume bat nor den eta nolako den, eta ondoren, emakume izateko askotariko moduei buruzko galderak sortu dira. Galdera horien erantzunek, alderdi teoriko eta politikoetan oinarrituta, identitateen eta subjektibotasunen azterketa funtsezko erreferente bihurtu zituzten, bi eraikuntzen eta horiek garatzen diren testuinguru soziokultural, historiko eta geolurraldekoen arteko lotura korapilatsuak azaltzeko gai diren proposamen epistemologikoak sortzeko (Lagarde 2008; Viveros 2010). Emakumeak subjektu gisa eratzeari buruz garatu den ikuspegi epistemologikoetako bat emozioen azterketa da. Feminismoak txertatu duen aldaera da horiek identitate menderatzaileen berregintza gisa aztertzea; baina baita proiektu pertsonal eta kolektiboak abian jartzeko eragile gisa ere. Edo bestela, borroka kolektiboen jarraipenean edo haien bertan behera uztean modu erabakigarrian eragiten duten elementu gisa (Esteban 2011; Cornejo, 2016).

Sorkuntzaren ikastun izatea. Prozesu teoriko eta praktikoa horiekin guztiekin batera, artea eta estetika emakumeak mende askoan menderatuta eta inbisibilizaturik egon ziren bi arlo direla egiaztatu izanak ikerketaren beste eremu bat zabaldu zuen, eta emakumeekin zientzian gertatu zen bezala, emakumeek arlo horietan artista, sortzaile eta berritzaile izan zirela azaleratzea ahalbidetu zuten azterketak egin ziren. Urraketak, errebeldiak eta artearen munduko androzentrismoa azaleratu eta artista feministek euren obrei ematen dieten erabilera politikoa ezagutaraziz mundua interpretatzeko modua eraldatzeko gaitasunak, diskurtso kanonikoak eta ohiko interpretazio estetikorako moduak deseraikitzea eragin zuen. Iberoamerika eta Latinoamerikako arte feminista aztertu dutenek (Bartra 2004; Norandi 2010; Antivilo 2015) funtsezko ekarpenak egin dizkiote interpretazio artistikoari.

Bestelako eratan (auto)izendatzea. Antzeko ibilbidea ikusi da literatura femeninoari eta literatura feministari buruzko ikerlanetan. Eremu horretan, kritika literarioan, analisi literarioan, diskurtsoaren analisisian eta literaturaren historian adituak direnak etengabe mintzatzen dira idazleekin. Prozesu horiei esker, diskurtsoa eta metadiskurtsoa jokoan jartzen diren ikuspegi epistemologikoak garatu dira literatura lanaren adar desberdinak identifikatzeko. Horien artean daude literatura lana bera, subjektibotasunaren eta emozioen analisisa, idazketaren alde politikoa eta literatura ezagutza gisa eratzeko deneko adierazpenak (Fe 2014; López 2010; Gargallo 2004).

Ikertzeko gure moduak. Gogoeta epistemologikoekin batera, ikerketa feministan erabiltzen ziren metodologiak berrikusteak ohiko metodologiak eta metodoak estandarizatu nahiaren kritika eragin zuen. Kritika horretan, lehenengo, egile anglosaxoiek zehaztutako bideei jarraitu zitzaizkien, baina, apurka-apurka, beste testuinguru batzuetan kokatutako esperientziek duten garrantzia ikusteak ikerketa xede hartuta emakumeen artean eta emakumeekin –eta beste genero-subjektu batzuekin– erlazionatzeko beste modu batzuk berreskuratzea eta bultzatzea ahalbidetu zuen. Modu horietan, gatazka sozialeko testuinguruetan (hala nola, Espainia demokraziarantz irekitzea, edo Latinoamerikako barne gatazka armatu, errepresio edo alternatiba demokratikoen eraikuntza prozesuak) haien ezagutzak berreskuratzeko premiak, beste iturri batzuetatik zetozen lan egiteko moduak txertatzea ahalbidetu zuen, hala nola, herri-hezkuntza, autokontzientzia taldeak eta etnografia kritikoa, ikuspegi feministarekin aplikatuak. Hirugarren une batean, aurreko orrietan aipatutako ikerketa modu berriek, ikertzaile gazte feministek bultzatuak batik bat, ezagutzaren

beste eremu batzuetan metodologia aukerak zabaltzea eragin du eta akademiara hurbildu ditu aktibismoaren berezko egikerak; eta, aldi berean, metodologia akademiko eta zientifikoak horien diziplinen eta erakundeen mugetatik harago eraman ditu (Castañeda 2008; Díaz eta Dema 2013; Ruiz eta Garcia 2018; Sandoval 2015).

Honaino azaldu ditudan hurbilpen guztiek (eta beste batzuk ere bai, jakina) agerian uzten dute kokatze teoriko-metodologiko feministen izaera multi-pluri-inter-diziplinarra; horietatik ezagutzarako ekarpen garrantzitsuak eta jardunbide sozial eraldatzaileak eratorri dira.

2. Ikerketa feministaren ekarpenak eta dilemak

Ezagutzak hainbat jardunetatik sortzen dira; eremu akademiko-zientifikoaren berezitasuna ikerketaren bidez egitea da. Ikerkerlari feministak sartu izanak ikertzeko ohiko moduak eta modu akreditatuak tentsioan jarri zituen (eta jartzen ditu oraindik ere). Horrekin batera, ebatzi beharreko dilemak ere aurkeztu dira, bai feminismoek proposaturiko kokatze desberdinetatik zein teoria, kudeaketa politikoa eta ikerketa feminista bera sendotzetik eratorriak. Jarraian, dilema horietako batzuk aipatuko ditut.

Ikerketaren ardatz emakumeak jartzea. Baliteke ikerketa feministaren ekarpen garrantzitsuena ezagutzak emakumeengandik abiatuta, emakumeengandik eta emakumeentzako eta alderdi femeninoaren inguruko ezagutzak sortzea izatea, Sandra Hardingek (1998) identifikatu zuen gisan. Lantzeko modu horretatik abiatuta, ekarpen garrantzitsuak egin dira ezagutzaren hainbat arlotan emakumeen egoeraren konplexutasuna erakusteagatik (eta azaltzeagatik) eta,aldi berean, munduan, eta bakoitzari dagokion munduan, kokatzeagatik/berkokatzeagatik: hor sortzen dira “besteak”, parte-hartzaile guztiak elkarrekiko halaxe diren bestetasun erradikal batean; eta ikerketa feministaren erlazio-izaera hedatu egiten da, beraz.

Beste alde batetik, androzentrismoarekin hausteak eragin du “eta” loturarekin soilik elkarri lotuz, problematika emakumeen aurretik doan enuntziatuak baztertzeara. Gauza bera gertatu da genero-ikuspegia txertatzen duten azterlan edo ikerketetan. Ikuspegi feminista (edo genero ikuspegia) txertatzeak, eta emakumea edo generoa gehitzera ez mugatzeak, pentsamendu kritiko eta konplexua hedatzea eragin du; eta horri esker, gizakion bizitzako gertaerak osotasunean azter daitezke, emakumeei eta alde femeninolari eragiten dieten moduan, baina bai eta berez ere, batik bat, botere-adierazpenei eta horiek gizateria osoan duten eraginari dagokienez.

Botere akademiko hegemonikoak zalantzan jarri zituen printzipio horiek; izan ere, ezagutzarako hurbilpen partzialera bideratzen zutela uste zuelako. Hala ere, kritika bera egin da “barrutik” ere; hau da, emakumeak ikerketaren “subjektu epistemiko pribilegiatu” gisa kontzeptualizatzea esentzialista dela uste duten zenbait jarrera feministetatik; nahiz eta ikuspegi horren xedea ez den ez isolatzea ez ikerketarako subjektu edo neurri bakar bihurtzea ere.

Feminismoaren subjektu politikoa zein denaren inguruko eztabaida garaikidearekin batera, ikerketa feministaren subjektu pribilegiatu emakumeak izatearen inguruko eztabaidak ere badira. Emakume transgeneroak edo transexualak eta beste subjektu ez binarioak ere kontuan hartzea dilema horren adibidea da.

Feminismoak. Emakumeen egoera partikularrak zehazki azaltzeko premiak eta haien izatearen inguruan landu diren azalpen teorikoek, eragin dute feminismoak eta haien erreibindikazioak emakume partikularrak euren historia propioen protagonista gisa kokatzeko eta birkokatzeko etengabeko mugimendu gisa bilakatzea. Mugimendu horretan beste subjektu batzuk ere sortu dira, pentsamendu, teoria eta politika feministan euren lekua eskatzen dutenak.

Feminismoaren pluralizazioak hainbat eztabaida argigarri ekarri ditu. Lehenengoak terminoari berari esleitzen zaizkion konnotazio desberdinekin zerikusia dauka: Hipergeneralizazioa al da, ala jarrera politiko eta eremu teoriko filosofiko baten mugatzea? Hori erabiltzeak, gaur egun jarrera politiko horren parte diren askotariko jarrera horiek ukatzen, subsumitzen edo menderatzen dituen supremazio-erakustaldia al dakar? Beste alde batetik, “feminismoak” esateak, jarrera feminista desberdinak ikusarazten al ditu ala haien nahiak sakabanatzen? Galdera horiei beste mota bateko galderak ere gehitzen zaizkie, aurrekoei lotuta: Gizonak izan al daitezke feministak

ala feministen aliatu besterik ezin dute jardun? Gizonek egin al dezakete ikerketa feminista? Galdera horientzat eta halako beste batzuentzat ere ez dago erantzun adosturik. Horrek ez ditu ukatzen eta ez ditu erlatibizatzen ere ezagutza kokatuen arloan lortu diren aurrerapenak, feminismoa-feminismoen arteko tentsio teoriko eta politiko horrek sustatutako proposamen teorikoen fintzearen emaitza gisa lortuak.

Ikerketa kuantitatiboa. Duela hamarkada batzuetatik hona, ikerketa feministek ikerketa kuantitatiboa egiteko modu berriak garatu dituzte gain-orokortasunak desagerrarazteko eta sexuen arabera banandutako informazioa sortzeko. Kontatzea funtsezko ariketa izan da inekitate soziala eta genero-parekotasunik eza erakusteko eta gure eskaeren garrantziaren aldeko argudioak azaltzeko, bizitza sozialean emakumeen presentzia edo ausentzia zenbatekoa den azalduz eta dimentsionatuz. Horri esker esan daiteke emakumeak, demografikoki, gizateriaren erdia diren arren, hainbat eremutan jarrera minoritarioak, periferikoak edo bazterrekoak izateko joera dagoela.

Egungo dilemak ikerketa feministek kontuan hartzen dituzten subjektuen dibertsifikazioarekin sortzen dira. Neurtzeko premiak gero eta konplexuagoak eta sofistikuagoak dira; beraz, informazioa biltzeko eta sistematizatzeko metodoak eta tresnak garatu behar ditugu bai emakumeak bai kategoria sozial menpekotuetan sailkatzen diren beste subjektuak modu berezian kaltetzen dituzten arazoak behar bezala azaltzeko.

Ikerketa mistoa oposizio binarioekiko hausturaren adierazpide. Pentsamendu binarioaren eta haren ondorioen hausturan, ikertzaile feminista askok hautatu dute ikerketa-prozedura mistoak erabiltzea; oso izaera desberdineko azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak konbinatuta, eta ikuspegi inter/multi/trans/diziplinarrak erabiliz. Hala ere, gaur egun, izaera misto horrek ez-ohiko metodoak erabiltzea ere esan nahi du; informazioaren eta komunikazioaren teknologikoekin eta kuantitatiboaren eta kualitatiboaren arauak hausten dituzten bestelako baliabide teknologiko, artistiko eta herrikoekin loturiko metodoak, alegia. Metodologia mistoekin egindako ikerketak kolektiboak izan ohi dira, eta daudenei bestelako dilemak gehitzen dizkiete; izan ere, ezagutza-erkidego desberdinetako kideak biltzen dituzten taldeak osatu ohi dituzte eta horrek gogoeta sakona eskatzen du ikerketaren titulartasunaren inguruan, ezagutzaren egiletzaren inguruan, aginte epistemikoaren onarpenaren inguruan, ikerlanaren xedearren inguruan eta lortutako emaitzen erabileraren inguruan. Eremu horretan, eztabaida zabaldu da ikerketa aktibistaren eta ikerketa akademikoaren artean; eztabaida horren ardatza metodoen eta lortutako ezagutzen balioespena da.

Emakume akademiko eta ikertzaile feministenganako "militantzia bikoitzaren" eskakizuna. Erkidego epistemikoentzat nahiz talde sozialentzat erabilgarriak diren ezagutzak sortzeko ahalegina egin arren, oraindik ere akademiko eta ikertzaile feministak errealitatetik "urrun" daudenaren ustea dago, eta horrek ahalegin handiagoa eskatzen die, bai barruan bai kanpoan, aktibismo feministaren erakunde eta mobilizazioekin bat egin behar izatea, kasu. Hala ere, ez da kontuan hartzen haietako askok bai hartzen dutela parte aktibismoan modu irmoan, edo beste batzuk erreibindikatzen dutela euren aktibismo modu zehatza "barrutik" eraldatu beharra daukan modernitatearen erakunde handietako baten barruan gauzatzen dela: alegia, unibertsitatean eta ikerketa zientifikorako erakundeetan.

Aurrekoarekin batera, bidezkoa da onartzea ere zenbait aktibistarengan eta instituzioetan errezeloa dagoela ikertzaile feministekin hitz egiteko. Gure herrialdeetan, feminista akademiko nabarmenek jardun izan dute hainbat adierazpen feministarako deia eginez funtzio publikoan edo politikari zirela, ezagutza feministak "erabilgarri" bihurtuz. Marcela Lagarde, Mexikon; Diana Maffía, Argentinan edo Dolores Comas, Espainian, teoria eta praktika feministaren arteko

ezinbesteko lotura erreibindikatzearekin zubilana egiten duten akademiko eta intelektualen hiru adibide baino ez dira.

Ikerketa feministan agertzen diren erronkek berretsi egiten dute ez dagoela ziurtasunik. Hau berez pizgarria da egindakoa baino urrunago joateko. Erronkek kultura nahiz ezagutza feministak zabaltzeko aukera ugariak ere erakusten dituzte.

3. Ikerketa feminista, askapenerako baliabidea

Aurreko orrialdeetan landutakoak ikerketa feministaren ezaugarri nagusietako bat –hots, ezagutu, eraldatzeko– praktikan jarri izanaren adierazpen multzoa biltzen du. Hainbat egilek aspaldidanik proposatzen duten ideia hori, emakumeen, subjektu feminizatuen, beste subjektu menderatuen eguneroko bizitza inguratzen duen konplexutasun horretako gai zehatzen bat, eta genero-joerek markatutako femeninoaren adierazpen ugarietako bat sakon aztertu nahi duen ikerketa eta unibertsitateko tesi bakoitzean gauzatu egiten da.

Feminismoan oinarrituta, ikertu ezagutzeko, eta ezagutu eraldatzeko; mendeetan emakumeak kontrolatzeko eta eusteko modu ezbedinei jarraipena emateko erabili izan den ezagutza metaketa irauli nahi duen prozesu beraren aldiak dira. Ikerketa feministak osatu egiten ditu feminismoak gizartearen errotiko eraldaketa lortzeko egiten dituen ahalegin sozialak, politikoak eta filosofikoak. Horren ildoan, konbentzionalismo akademiko eta zientifikoek berregiten dituzten ikertzeko moduetara atxiki beharrea, arakatu, entseiatu eta berritu egiten du, modu horretan emakumeen eta jendartearen askapenerako bide anitzak irekiz.

Bide horietako eduki batzuk azpimarratzea garrantzitsua da, ikerketa feminista egiteak eta feminista gisa ikertzeak dakarren konpromiso sozialaren inguruko gure kontzientzia zabaltzeko.

Teoria eta praxia. Akademia feministaren ikuspuntutik, ezagutza sortzea konpromiso politikoa da; izan ere, errotiko eraldaketarako eta indarkeria, bidegabekeria eta desberdintasun modu oro desagerrarazteko alternatibak eskaintzea du xede. Ondorioz, akademia feminista egitea politika feminista egitea da. Helburu hori lortzeko, akademiko eta zientzialari feministak teoriaren eta praxiaren arteko loturari eusten ahalegintzen dira, hau da, eraldatzeko jarduteko gaitasunari. Lotura hori oso modu desberdinetan adierazten da, batzuetan aldi eta erritmo berean, eta bestetan desfasetuta; xede dituzten prozesu eta eskaerek euren logika propioak dituzte eta. Hala ere, horrek ez du kentzen bi ekintzen –teoriaren eta praxiaren– xede nagusia nagusitzen den egoera etengabe zalantzan jartzea eta emakumeen eta jendartearen erabateko askapena lortzeko alternatibak bilatze nekaezina izatea; izan ere, “askapena, ezarritako boterearen aurreko alternatiba baino gehiago da, subjektuen, hegemoniaren eta besterentzaileak izango ez diren harreman sozialen eraikuntza da” (Carosio 2017: 29). Askapenaren errotiko nozioan, bizi-baldintza berrien eta ingurumenarekin eta munduan bizi diren gainerako izakiekin begirunean oinarrituriko harremanen eraikuntza sartzen da ere. Horretarako, sexu ete genero-baldintzen eraldaketarekin batera, ezinbestean, eredu ekonomikoaren, politika egiteko moduen eta gizartea antolatzeako koordinatuen eraldaketa gertatu behar da. Horregatik, ikerketa feminista eraldaketa horiek ahalbidetzen lagunduko duen jardutearen elementu kritikoak identifikatzera bideratzen da.

Kontsiderazio etikoak. Eraldaketa sozialean eragiteko etika feminista sustatu behar da. Francesca Gargalloren (1994: 26) hitzetan, etika “erlazio-askatasuneko ekintza da, humanizazio bat”. Beraz, ikerketa feminista egiteak norbanakoaren askatasuna gauzatzea dakar, berezkoa eta ikerketa prozesuan parte hartzen duten pertsonena. Horrek eragiten du kontsiderazio etikoak etengabe aztertu eta birformulatu beharra, beste eginbehar gisa formula daitezen saihestuta; erlazio-eremuari dagokionez, jarrera kritiko partekatuak ezartzea da gakoa.

Testuinguru horretan, ikertzaile feministentzako dilema nagusia da argitzea norentzat ikertu eta zergatik ikertu merkatuaren eta produktibitatearen arauen mende dagoen laneko eskema batetik. Horrek bultzatu egin ditu ikertzaile asko “lanaldi bikoitzeko” konbinazio bat hautatzera:

norabide batean lan egiten da erakundeen eskakizunei eusteko, eta beste norabide batean ere bai, ikerketa ekintza sozialerako baliabide gisa erabiltzeko; beste ikertzaile batzuen ustez, berriz, jarrera etikoa da sistemaren barruan irauteari uko egitea eta ikerketa militantea soilik egitea. Baina hirugarren talde bat ere badago, eta horien erantzuna da ezagutzen ekoizpen akademikoan soilik zentratzea, jendartearekin loturarik ahalbidetu gabe. Eztabaidaren gakoa da ea posible den askapenerako ekarpenak egitea eremu instituzionalen barruan.

Boterea eta politika ikerketa feministan. Aurreko guztia ikusita, onartu behar dugu ikerketa feministaren eremuan ere botere posizioak jartzen direla jokoan, bai eta politika akademiko androzentrikoaren eta politika akademiko feministaren artean tentsioak daudela ere. Horren ildoan, ikertzaile feministentzat inflexio puntua da haien boterearekin eta gehienetan ikerketan parte-hartzen duten pertsonen aldean pribilegiatuak diren posizioetatik zer egin. Puntu horretan etika, boterea eta politika gurutzatu egiten dira.

Hala ere, kontsiderazio horiek ikerketa feminista egiten dutenen artean ere gertatzen dira, arriskua baitago feminismoak supremazismo modu berri bihurtzeko haien arteko desberdintasunak nabarmentzen direnean, eta ez modu zehatzetan subjektu partikularrei eragiten dieten arazo komunak ertzak lantzen dituzten posizioen arteko elkarrizketak. Ondorioz, teoria, metodologia edo postulatu baten hegemoniagatiko tirabirak sortzen dira eta modu esentzialistan erreibindikatu da ikerketan izan behar bat edo askapenerako bide bakar bat. Hortaz, erronka garrantzitsua da lortzea ikerketa feminista ez normalizatzea eta, ondorioz, ez despolitizatzea.

4. Epilogo gisa

Zientzian eta ikerketan androzentrismoa kritikatzeko, deseraikitzeak, eta beste oinarri eta helburu batzuekin zientzia eta ikerketa gauzatu nahi izateak, ikerketa feministaren inplikazioez eta ondorioez jabetu behar izatearen erantzukizuna ekarri du. Aldi berean, ikerketa feminista zeregin zientifikoaren eragile eta harekiko kritikaren emaitza izan da. Horretatik ondorioztatzen diren ezagutzak emakumeentzat “erabilgarriak” izan daitezten eta “haiek nahi eta behar dutenari erantzun diezaieten” (Sandra Hardingek esan zuen moduan), erabilgarritasunari buruz dugun kontzeptuaren eta gure kontzientzia historikoaren arabera izango da, baina baita formatzen eta jarduten garen diziplinen, gure posizionamendu teorikoen eta gure ekarpenen hedaduraren arabera ere.

Ez dezagun pentsatu ezagutza feministak feministei soilik inporta zaizkiela. Hala balitz, ez litzuke gertutik segituko intelektualitate kontserbatzaileak; zeinak hartaz jabetu eta esanahi berriak emateko logika maltzurra erabiltzen duen haiek despolitizatzeko edo gure kontra erabiltzeko. Hori horrela da proposamen feminista garrantzitsuenetako bat pentsamenduaren askapena delako. Askatasunez pentsatzea eta jardutea ezagutza sortzeko baldintza da; bereziki, ezagutza feministak sortzeko. Ezin da ezagutza kokatua, inplikaturik eta konprometitua eragin sormenik gabe, arauak urratu gabe, jarduteko askatasunik gabe. Feminismo akademikoaren ekarpen handienetako bat ezagutza horiek sortzeko prozesuak dokumentatzea da; historizatu egiten ditu, transmititu eta interpretatu, zentzu-erreferentzia berriak sortuz, askapen sozialari eta prozesu zibilizatzailaren sendotzeari laguntzeko bere aukerak handitzeko (Carosio 2017).

Askapena kolektiboa da. Menderatzailearekin haustea ez ezik, zapalkuntza modu guztiak errotik desagerrarazteari egiten dio erreferentzia, norbanakoen eta jendartearen arteko dialektikan. Ikerketa feminista teoria(k), epistemologia(k) eta metodologia(k) feministak artikulatuta gauzatzen da; hortik abiatuta, jomuga akademikoak zabaltzeko ezagutzak, kontzeptuak, kategoriak, galderak eta hipotesiak sortzen ditu, eta aldi berean, horiek jendarteari eskaintzen dizkio honen eraldaketarako. Horren adibidea da erkidego epistemiko plural, askotariko eta heterogeneoak sortu izana; bai eta berebizikotzat jotzen diren gaietan murgiltzen diren ikertzaile feministen belaunaldi berriak sortu izana ere.

Ibilbide luze baten kontraera labur eta ez-oso honen xedea da gogoraraztea zenbat gauza egin ditugun eta zenbat gauza dauden egiteke; baina, batez ere, gure nahien konplexutasuna gogoratzeko gonbita da. Ikerketak ez ditu pentsatzeko eta sortzeko aukera feministak agortzen, eta ez du ardatz izan nahi askatasuna, zoriontasuna, askapena eta eraldaketa soziala bateratzeko prozesuan. Eros epistemologiko feminista hedatzeko arloetako bat aberasten lagundu nahi du: jakiteko nahia, askatasunean izateko.

Bibliografía

ANTIVILO, Julia (2015): *Entre lo sagrado y lo profano se tejen rebeldías. Arte feminista latinoamericano*, Desde Abajo, Bogota.

BACH, Ana María (2010): *Las voces de la experiencia. El viraje de la filosofía feminista*, Biblos, Buenos Aires.

BARTRA, Eli (konp.) (2004): *Creatividad invisible. Mujeres y arte popular en América Latina y el Caribe*, UNAM, Mexiko.

BIDASECA, Karina (2016): *Feminismos y Poscolonialidad 2*, Godot, Ciudad Autónoma de Buenos Aires.

BIDASECA, Karina eta Vanesa VÁZQUEZ LABA (konp.) (2011): *Feminismos y Poscolonialidad*, Godot, Ciudad Autónoma de Buenos Aires.

BLAZQUEZ GRAF, Norma (2010): "Epistemología feminista: temas centrales", BLAZQUEZ GRAF, Norma, Fátima FLORES PALACIOS eta Maribel RÍOS EVERARDO (koord.): *Investigación feminista. epistemología, metodología y representaciones sociales*, UNAM, Mexiko, 21-38.

CAROSIO, Alba (2017): "Perspectivas feministas para ampliar horizontes del pensamiento crítico latinoamericano", SAGOT RODRÍGUEZ, Monserrat (koord.): *Feminismos, pensamiento crítico y propuestas alternativas en América Latina*, Ciudad Autónoma de Buenos Aires, CLACSO, 17-42.

CARRASCO BENGGOA, Cristina eta Carmen DÍAZ CORRAL (arg.) (2017): *Economía feminista. Desafíos, propuestas, alianzas*, Entrepueblos/Entrepobles/Entrepobos/Herriarte, Bartzelona.

CASTAÑEDA SALGADO, Martha Patricia (2008): *Metodología de la investigación feminista*, Guatemala-CEIICH Fundazioa, UNAM, Guatemala.

CIRIZA JOFRÉ, Alejandra (2012): "Genealogías feministas: sobre mujeres, revoluciones e Ilustración. Una mirada desde el sur", *Estudios Feministas*. 20(3), 613-633.

COBO, Rosa (2011): *Hacia una nueva política sexual. Las mujeres ante la reacción patriarcal*, Los Libros de la Catarata, Madril.

CORNEJO, Amaranta (2016): "Una relectura feminista de algunas propuestas teóricas del estudio social de las emociones", *INTERdisciplina*, Bol. 4, 4. Zbk., Dossier Feminismos, 89-103.

CURIEL, Ochy (2007): "Los aportes de las afrodescendientes a la teoría y práctica feminista: desuniversalizando el sujeto mujer", FEMENÍAS, María Luisa (konp.): *Perfiles del Feminismo Iberoamericano*, Bol. 3, Catálogos, Buenos Aires, 169-190.

DÍAZ MARTÍNEZ, Capitolina eta Sandra DEMA MORENO (arg.) (2013): *Sociología y Género*, Tecnos, Madril.

ESPINOSA, Yuderkys, Diana GÓMEZ eta Karina OCHOA (arg.) (2014): *Tejiendo de otro modo: feminismo, epistemología y apuestas descoloniales en Abya Yala*, Universidad del Cauca, Kolombia.

ESTEBAN, Mari Luz (2011): *Crítica del pensamiento amoroso. Temas contemporáneos*, Bellaterra, Bartzelona.

FE, Marina (2014): *Mujeres en la hoguera. Representaciones culturales y literarias de la figura de la bruja*, UNAM, Mexiko.

FEDERICI, Silvia (2013): *La revolución feminista inacabada. Mujeres, reproducción social y lucha por lo común*, Escuela Calpulli, Mexiko.

FULCHIRON, Amandine (2018): *La "ley de mujeres". Amor, poder propio y autoridad. Mujeres sobrevivientes de violación sexual en guerra reinventan la Justicia desde el cuerpo, la vida y la comunidad*, Latinoamerikako Ikasketetan Tesi Doktorala, UNAM, Mexiko.

GANNON, Susanne eta Bronwyn DAVIES (2012): "Postmodern, Post-Structural, and Critical Theories", HESSE-BIBER, Sharlene N. (ed.): *The Handbook of Feminist Research. Theory and Praxis*, 2. edizioa, Sage, AEB, 65-91.

GARGALLO, Francesca (1994): "Ética, ética feminista y libertad", BEDREGAL, Ximena (koord.): *Ética y feminismo*, La Correa Feminista, Mexiko, 24-29.

– (2004): *Las ideas feministas latinoamericanas*, Universidad de la Ciudad de México, Mexiko.

– (2012): *Feminismos desde Abya Yala: ideas y proposiciones de las mujeres de 607 pueblos en Nuestra América*, Desde Abajo, Kolonbia.

GÓMEZ CORREAL, Diana Marcela (2015): "De amor, vientre y sangre: Politización de lazos íntimos de pertenencia y cuidado en Colombia", *En Otras Palabras*, 23, 103-119.

GONZÁLEZ, María Luisa y Patricia RODRÍGUEZ (koord.) (2017): *Austeridad y empleo femenino: tendencias y desafíos*, UNAM, Mexiko.

GUTIÉRREZ, Raquel (2014) (1996): *¡A desordenar! Por una historia abierta de la lucha social*, Tinta Limón, Argentina.

HARDING, Sandra (1996) [1993]: *Ciencia y feminismo*, Morata, Madril.

– (1998) [1987]: "¿Existe un método feminista?", BARTRA, Eli (konp.): *Debates en torno a una metodología feminista*. Universidad Autónoma Metropolitana-Xochimilco, Mexiko.

HERRERA, Gioconda (2012): "Género y migración internacional en la experiencia latinoamericana. De la visibilización del campo a una presencia selectiva", *Política y Sociedad*, 49(1), 35-46.

HESSE-BIBER, Sharlene N. (2012): "Feminist Research: Exploring, Interrogating, and Transforming the Interconnections of Epistemology, Methodology, and Method", HESSE-BIBER, Sharlene N. (ed.): *The Handbook of Feminist Research. Theory and Praxis*, 2. edizioa, Sage, AEB, 2-26.

HIERRO, Graciela (2001): *La ética del placer*, UNAM, Mexiko.

LAGARDE, Marcela (1998): *Identidad genérica y feminismo*, Instituto Andaluz de la Mujer, Sevilla.

– (2011): "Prefacio: claves feministas en torno al feminicidio. Construcción teórica, política y jurídica", FREGOSO, Rosa-Linda (koord.): *Feminicidio en América Latina*, UNAM-Red de Investigadoras por la Vida y la Libertad de las Mujeres, Mexiko.

LEÓN T., Magdalena (2011): "Redefiniciones económicas hacia el Buen Vivir: un acercamiento feminista", AWID Women's Rights, hemen eskuragarri:
<http://fedaeps.org/IMG/pdf/Magdalena_Leon_buenvivir_economia.pdf>.

LEYVA, Xóchilt *et al.* (2015): *Prácticas otras de conocimiento(s). Entre crisis, entre guerras*, Cooperativa Editorial Retos, Programa Democracia y Transformación Global, Grupo Internacional de Trabajo sobre Asuntos Indígenas, Talleres Paradigmas Emancipatorios-Galfisa, Proyecto Alice-Centro de Estudios Sociales de la Universidad de Coimbra, Taller Editorial La Casa del Mago, Mexiko.

LÓPEZ, Guisela (konp.) (2010): *Mujeres, discurso y ciudadanía*, Colectiva de las Mujeres en las Artes, CEG, IUMUSAC, INESLIN, Guatemala.

MARCOS, Sylvia (2010): *Cruzando fronteras. Mujeres indígenas y feminismos abajo y a la izquierda*, Universidad de la Tierra, Chiapas, Mexiko.

MÉNDEZ, Georgina (2018): *El fin de la ventriloquia: estrategias políticas y organizativas de mujeres indígenas en Ecuador, Guatemala y México*, en Zientzia Antropologikoetan Tesi Doktorala, Universidad Autónoma Metropolitana-Iztapalapa, Mexiko.

MENDOZA, Brenny (2014): *Ensayos de crítica feminista en Nuestramérica*, Herder, Mexiko.

MEZA MÁRQUEZ, Consuelo eta Magda ZAVALA (2015): *Mujeres en las literaturas indígenas y afrodescendientes en América Central*, Universidad Autónoma de Aguascalientes, Mexiko.

MUÑIZ, Elsa (koord.) (2010): *Disciplinas y prácticas corporales: una mirada a las sociedades contemporánea*, Anthropos-UAM-Azcapotzalco, Bartzelona eta Mexiko.

NORANDI, Elina (2010): "Imágenes y vivencias lesbianas en el arte contemporáneo: México y España", *Letras Femeninas*, XXXVI(1), 37-53.

RESTREPO, Alejandra (2016): *Tras los rastros del proyecto sociopolítico feminista: Encuentros Feministas Latinoamericanos y del Caribe 1981-2014*, Latinoamerikako Ikasketetan Tesi Doktorala, UNAM, Mexiko.

ROSE, Hillary (1983): "Hand, Brain, and Heart: A Feminist Epistemology for the Natural Sciences", *Signs. Journal of Women in Culture and Society*, 9(1), 73-90.

ROSTAGNOL, Susana (2016): *Aborto voluntario y relaciones de género: políticas del cuerpo y la reproducción*, CSIC, Universidad de la República, Montevideo.

RUIZ TREJO, Marisa eta Dauder GARCÍA (2018): "Los talleres 'epistémico-corporales' como herramientas reflexivas sobre la práctica etnográfica", *Universitas Humanística*, Dossier Etnografía en el Sur global, 86, 55-82.

SANDOVAL, Chela (2015): *Metodología de la emancipación*, UNAM, Mexiko.

SMITH, Dorothy (1990): *The Conceptual Practices of Power. A Feminist Sociology of Knowledge*, University of Toronto Press, Toronto.

SUÁREZ NAVAZ, Liliana eta Rosalva Aída HERNÁNDEZ (2008): *Descolonizando el feminismo. Teorías y prácticas desde los márgenes*, Cátedra, Madril.

TARDUCCI, Mónica (2018): “Un viaje personal por la antropología feminista”, *Revista Feminismos*, Bol. 6, urtarrila-apirila, hemen eskuragarri: <<http://www.feminismos.neim.ufba.br/index.php/revista/article/viewFile/583/288>>.

VALDIVIESO, Magdalena (2007): “Críticas desde el feminismo y el género a los patrones de conocimiento dominantes”, *Revista Venezolana de Estudios de la Mujer*, 12(28), 185-202.

VALENCIA, Sayak (2016): *Capitalismo gore. Control económico, violencia y narcopoder*, Paidós, Mexiko.

VIVEROS VIGOYA, Mara (2010): “La sexualización de la raza y la racialización de la sexualidad en el contexto latinoamericano actual”, Ponencia, Universidad Nacional de Colombia, Bogota, hemen eskuragarri: <<http://www.bivipas.unal.edu.co/handle/10720/663>>.

Emozioak, epistemologia eta ekintza kolektiboa indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan. Ikerketa feministaren esperientzia bati buruzko gogoeta laburra

Diana Marcela Gómez Correal

Sarrera

Logozentrismoaren inperioaren mende, emozioak ezezagunak eta baliogabetuak izan dira, eta ondorioz, lotura sozialen eraikuntzan, erkidegoetan eta jendartean, oro har, izan duten garrantzia inbisibilizatu egin da. Arrazoia eta emozioa kontrajartzen dituen modernitatearen ikuspegi dikotomikoak eraginda, emozioek politikan, menderakuntzan, ezagutzaren sorkuntzan eta errealitatearen, identitateen eta subjektibitateen eraikuntzan izan duten eginkizuna ezezaguna izan da luzaroan; bai eta zaintzaren zentralitatea eta sufrimendu sozialaren esperientzia bera ere, jakintzaren eta mikro eta makro-politikaren diziplinetan.

Oro har, azkeneko hamarkadetan, eta, besteak beste, ekarpen feministei esker, gero eta gehiago aintzatesten da emozioek ezagutzaren sorkuntzan duten eginkizuna, aztergaia eta ezagutzaren ekoizpenaren ardatz diren aldetik. Ekintza sozial kolektiboari buruzko azterketetan, esaterako, emozioek garrantzi berezia hartzen dute 1970.eko hamarkadaz geroztik (Flam eta King 2005); indarkeriak eragindako sufrimendu sozialari buruz diharduten jakintzaren eremuetan, aldiz (Das 2008; Kleinman eta Kleinman 1996), emozioak funtsezkoak dira haren eragina ulertzeko.

Testu honek, ikerketa militantetik abiatuta, ekarpena egin nahi du indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan ematen diren eraldaketa sozialeko prozesuetan emozioak aztertzeke, epistemologia feministatik abiatuta. Horretarako, ardatz hartuko dut Kolonbian estatuaren eta paramilitarren indarkeriazko testuinguruan desagerrarazitako eta eraildako pertsonen senitartekoen politizazio-prozesuetan emozioek izan duten eginkizuna ulertzeko erabilitako metodologia; politizazio prozesu horietan emozioen eginkizunaren inguruan egindako aurkikuntza batzuen aurkezpena eta sufrimendu sozialaren esperientzia; eta, azkenik, ikerketa-ibilbide horrek ekarri dituen ikaskuntzak.

Testu honek lau atal ditu. Lehenengoak, indarkeria sozio-politikoko testuinguruetako politizazio-prozesuetan emozioek duten eginkizunari buruzko galderaren esperientzia-jatorria kokatzen du; bigarrenean, erabilitako metodologia eta egindako zenbait aurkikuntza deskribatzen dira; hirugarrenean, indarkeriarekin loturiko ikerketa batean emozioak aztertzeak ekarri zituen ikaskuntza etikoak, metodologikoak eta *intimoak* lantzen dira; eta laugarrenean ondorio labur batzuk jaso dira.

1. Abiapuntua: esperientzia

1989an, Renato Rosaldok emozioei buruzko saiakera bat argitaratu zuen; gaiari buruzko gogoeta antropologiko eta feministei jarraipena emateaz gain, aztergai diren subjektuen emozioak ulertzeko, ikertzaileak bizi izandako esperientziak duen garrantzia azterketaren erdigunean jarri zuen. Michelle Rosaldo, antropologoa eta Rosaldoren emaztea, istripuz hil zen landa-lana egiten ari zen bitartean. Renato Rosaldok (1989: 188) adierazten du gertaera tragiko horrek amorru handia sentiarazi ziola eta esperientzia horrekin ulertu zituela ilongotek egiten duten buru-ehizaren atzean dagoen “emozioen indarra” eta ehizaren beraren zentzua¹.

Niri antzeko zerbait gertatu zitzaidan. Emozioekiko nire harreman politiko eta intelektuala Kolonbiako bakearen aldeko emakume eta feministen mugimenduko partaide nintzela loratu zen. Han, alde batetik, Bakearen aldeko Kolonbiako Emakumeen Ekimeneko (IMP) emakume buruzagien jardun politikoa eta 1970. eta 1980. hamarkadeetan Bogotako mugimendu feministaren berezitasunak ikertzen zentratu nintzen. Eta azken horretan, bereziki interesatzen zitzaidana aldaketaren subjektu-feministaren eraikuntza ulertzea zenez, patriarkatuaren eraldaketarako aginte politikoaren, horrek dakartzan botere-harremanen eta feministen beharrian emozionalen artean bizi diren paradoxa ugariak identifikatzen eta behatzen hasi nintzen (Gómez 2011). Ulertu nuen emozioak funtsezkoak zirela emakume horien mobilizazio politikoan, ez dagoela aldaketa posiblekerik zer eta nola sentitzen dugun kontuan hartzen duen aldaketa subjektiborik gabe, eta eraldaketaren hedadura, neurria eta erritmoa konplexuago bihurtzen direla subjektu indibidual eta kolektibo bakoitzaren ezaugarri afektiboen arabera.

Beste alde batetik, herrialde osoan zehar, euren pertsona maiteak galdu zituzten emakumeekin partekatuz hasi nintzen nire buruari galdetzen zer rol betetzen zuten emozioek desagerrarazitako, bahitutako edo eraildako pertsonen senitartekoen politizazioan. Orduko hartan jakinmina piztu zidan eta ulertu nahi nuen zerk bultzatzen zituen senitartekoak –gehienetan emakumeak– antolakuntza prozesuetan parte hartzera, batik bat, jendarte bortitz batean, non euren jarduna bera ere arriskutsua izan zitekeen, eta gainera, pertsona maite horien ausentziak eragindako min handi hori bizitzen ari ziren unean. Aurrerago, galdera horrek garrantzi berezia hartu zuen, nire aitaren behartutako desagerpena bizi izan bainuen, eta horrek eraman ninduen aurreko galdera honako doktore-tesian gauzatzera: *Of Love, Blood and the Belly: Politicization of Intimate Ties of Caring and Belonging in Colombia* (2015).

Ikerketaren helburu espezifikotako bat izan zen estatuko eragileek edo paramilitarrek desagerrarazi, erail edo indarkeriaz hartutako pertsonen senitartekoen politizazioan emozioek zuten rola arakatzea². Hasieratik, aktibismoa akademiarekin lotzeko modu gisa pentsatu zen ikerketa, elkarrekiko elkarriketak eta afektazioak bilatuz. Ikerketa diseinatzean gogoeta-begirada bat jarri zen erdigunean, eta horrek hasieran uste zena baino zertxobait konplexuago bihurtu zuen zeregina.

¹ Michelle eta Renato Rosaldok ilongoteekin egin zuten landa-lana; Filipinetan, Manilaren ipar-ekialdean bizi den giza taldearekin. Renato Rosaldok gizatalde horretan gertatzen den giza-buruen ehizaren esanahia ulertu nahi zuen. Landa-lana egiten ari zen bitartean, azalpen hau eman zion ilongote batek antropologoari: “samintasunetik sortzen den amorruak beste gizaki bat hiltzera bultzatzen du”, “amorrua nora bideratu” eskatzen duelako” (Rosaldo 1989: 15). Rosaldok deskribatzen duen bezala, hori entzun eta hamalau urtera soilik ulertu ahal izan zuen; hain zuzen, bere oinaze-esperientzia propiotik, “gizon ilongoteek samintasuneko amorruari buruz deskribatzen zutena buruak mozteko nahiaren iturri gisa zehazki adierazten zutela” (*Ibidem*: 16-17).

² Beste helburu espezifikotako dira biktimaren identitatea eraikitzeke prozesua eta horrek subjektibitateetan duen eraginak ulertzea; subjektu biktimizatuek bakegintzari eta Kolonbiako jendarteari egindako ekarpenak; eta subjektu biktimizatuen eta indarkeriaren arduradunen arteko botere-liskarrak.

Ikerketa ezagutza sortzeko ariketa deskolonial eta feminista gisa taxutu zen, eta militantea ez ezik, elkar-gurarizkoa, parte-hartzailea eta auto-etnografikoa ere izan zen. Ikerketa egiteko zazpi premisa teoriko/metodologiko hartu nituen ardatz; horien arteko bat, gorputzatik ezagutzea eta, bestea, osatze prozesuetan aurrera egitea ziren³. Metodologiaren diseinuak eragin zuen, nolabait, nire esperientzia bera azterketaren erdigunean egotea, abiapuntu gisa⁴. Horrek besteak aztertzearen logika kolonial/inperiala (Smith 1999) eta subjektu/objektu banaketa kolokan jarri zituen, gainera bizipen propioaren aberastasuna oso-osorik arakatzeko abantailarekin.

Nire ibilbideari esker, ezagutzaren ekoizpenean baliogabetu egin ohi diren dimentsiotatik hurbildu ahal izan nintzen ikerketako galderetara: historia pertsonala, emozioak, gorputza, ametsak eta intuizioak. Ikerketako galderetako batzuk biktimizazioaren dimentsio intimo, subjektibo, emozional eta pribatuetan sartzen ziren. Antzeko historia bat bizi izateak ahalbidetu egin zidan entzuten nituen pertsona eta historia horiekin hurbiltasun handiagoarekin jokatzeko eta nire bidearekin bat egiten zuten galderetan sakontzea, haien inguruan gogoeta jarraituzera bultzatzen ninduen *esperientzian oinarritutako jakintza* bat neukalako. Aldi berean, azterketaren aukera zabaldu zuen horrek, senitartekoek errealitatearen dimentsio batzuk bizitzen zituzten modua erregistro “ofizialetan” ulertzen diren moduekin kontrastatzeko, zalantzan jarri kultur menderatzailetik errealitatearekiko harremana eraikitze erabiltzen den begirada dikotomikoa⁵.

³ Beste bostak honako hauek dira: ezagutza militantea, elkar-gurarizkoa eta parte-hartzailea sortzea; teoria eta praktika lotzea; errealitatea bere konplexutasunetik ulertzea; ausentziak eta gailentzeak arakatzeko; eta askapenerako pedagogia abian jartzea.

⁴ Ikerketak osagai auto-etnografikoa izan zuen arren, ez da nire esperientzia hutsera mugatzen. Biktimen hainbat erakunderekin lan egin nuen, eta zenbait senitartekorekin ere bai, modu zehatz eta hurbilagoan.

⁵ Senitarteko askoren esperientzian, emozioa/arrazoia, bizitza/heriotza, gogoeta/gorputza, ametsak/errealitatea, espiritualtasuna/politika, iragana/oraina, memoria/ahantzura gisako dimentsioak guztiz lotuta daude, eta ez ordea hierarkikoki bereziak.

2. Emozioak, politika eta sufrimendua Kolonbiako subjektu biktimizatuen ibilbideetan

Emozioak presente daude gure eguneroko bizitzan. Gertatzen zaizkigun gauzen aurreko erreakzioa izateaz gain, esanahia sortzeko jardunak pizten dituzte (Gould 2009: 13) eta jardutera bultzatzen dute (Oatley 2004: 3). Arrazoiarekin kontraposizioan egon beharrean, harekin etengabe elkar-jarduten dute (M. Rosaldo in Leavitt 1996: 524). Egunerokotasunean ageri diren arren eta bizitzarako funtsezkoak izan arren, ez da erraza aztergai gisa lantzea. Horretarako, ikerketako galderekin⁶, testuinguruarekin eta kontzeptu erreferenteekin, azterketarako metodologiak landuz joan nintzen.

Subjektu biktimizatuek eta biktimen erakundeetako beste kide batzuek eguneroko ekintzetan (bilerak, jendaurreko ekitaldiak, oroimen ekitaldiak, manifestazioak) bizi zituzten eta adierazten zituzten emozioei arreta jartzeaz gain, arreta berezia jarri nien haiei euren bizi-historietan eta elkarrizketetan. Elkarrizketa horietako batzuetan esplizituki galdetu nuen emozioei buruz, eta subjektu biktimizatuek galderen aurrean agertzen zituzten intonazioan, narrazioan, errepikapenetan, gorputz-adierazpenean eta erreakzioetan jarri nuen arreta. Gauza bera gertatu zen tailer eta eztabida taldeetan ere; horietan lantzen genituen gaien ondorioz, emozio biziak beti ziren oso agerikoak.

Politizazio prozesuetan emozioei buruzko galdera guztiei zuzenago erantzuteko, gorputzaren kartografia emozionalari eta emozioen ibilbideei buruzko tailer bat antolatu nuen. Tailerra oso erritual intimo batekin hasi genuen, eta horri esker, talde gisa konfiantza hartu eta burua, gorputza eta bihotza prestatu genituen indarkeriak gorputzak nola markatu zituen aztertzeke; baita pertsona maiteengandik sentitzen diren emozioak eta haiek galdu ostean sentitu direnak, eta emozio horiek bizitzako ibilbideetan barrena nola doazen aztertzeke ere.

Pertsona maiteak bilatzeko eta haien eta gure eskubideak exijitzeko mobilizatzeraz bultzatu gintuzten emozioak ezagutzeko, banan-banan identifikatu genituen *gertaera afektiboa* – indarkeriazko gertaera– jazo aurretik gudan pizten zituzten emozioak. Jarraian, gertaera horrek pizten zizkigun emozioak identifikatu genituen eta aurrez marraztutako siluetetan kokatzen genituen (gorputzaren kartografia emozionalak). Azkenik, emozio horiek denboran zehar nola ibili diren (emozioen ibilbideak) kokatu genuen; senitartekoen bilaketan eta egia eta justizia bezalako eskaeren zehaztapenean izan diren une garrantzitsuak gogoratuz, eta horiek antolakuntza prozesuan izan duten eginkizunaz hausnartuz.

Erritual txiki batekin hasi ginen. Mandala –Unibertsoa irudikatzen duen hinduismoa ikur espiritualak– baten inguruan senitartekoen izenak eta kide gaituzten erakundeak idatzi genituen, bai eta antolakuntza prozesuetan aurrera egiteko garrantzitsuak iruditzen zaizkigun elementuak ere⁷. Geroago, indarkeriazko gertaeren aurretik gure pertsona maiteekin lotzen gintuzten emozioak identifikatu genituen, eta ikusi ahal izan genuen historia hauetan *metatutako maitasuna* dagoela *gertaera afektiboaren* aurretik. Senitartekotasun eta erkidegoko loturetan pizten eta lantzen den maitasuna da, krimena gertatu aurretik pertsona maiteengandik sentitzen

⁶ Emozioen inguruan egin nahi nituen galdera batzuk dira honako hauek: Zein dira politizazio prozesuarekin batera doazen emozioak? Zer eginkizun dute senitartekoek euren maitatuen bila joateko, haien eskubideak eskatzeko eta antolakuntza prozesuei atxikitzeke? Zer emozio eragiten dituzte ekintza bortitzak eta zigorgabetasunak? Nola adierazten dira emozio horiek eguneroko bizimoduan eta senitartekoen gorputzetan, eta nola borrokatzen dira haiekin?

⁷ Besteak beste, egia, justizia, erreparazioa, zigorgabetasunik eza, giza eskubideak, biktimen arteko batasuna, akonpainamendua, erresistentzia eta ekintza kolektiboa.

diren emozioen emaitza: samurtasuna, harrotasuna, afektua, poza eta gogobetetzea. Emozio horiek guztiak estu lotuta daude zaintzarekin, eta afektuaren gauzapena dira. Arrazoiaren gauzapenarekin batera, senitartekoen borroka pizten duen eragilea dira emozio horiek.

Horrela, emozioek eta arrazoiak bultzatuta, senitartekoei jardutea “erabakitzen” dute. “Erabaki” hori ez da une jakin batean eta modu guztiz kontzientean gertatzen; aitzitik, haien gorputzen eta bizitzaren jarioaren emaitza dira. Emozioak ekintzak ere badira (Ahmed 2004: 7), ebaluazio, epai gisa dihardute. Prozesu horretan, senitartekoei bidegabekotzat jotzen dute bizi duten egoera; Moorek (1989) “sumindura morala” deitzen duena, eta nik emozio mota bat balitz bezala ulertzea proposatzen dudana; alegia, afektuaren⁸ eta arrazoiaren gauzatzea.

Emozioen kartografiak eta ibilbideak gakoak eman zizkiguten *gertaera afektiboak* subjektua betiko markatuko dutela diruditen emozioak sorrarazten dituela ulertzeko. Emozio horiek denboran zehar mugitzen dira, ez dira estatikoak, “denboraren haragia” (Ahmed 2004) gisa esperimentatzen dira. Horietako batzuk beti ageri dira, inguruabarren (oroimen ekitaldiak, urteurrenak, fiskala eta abokatuarekin bilerak egitea, familiako data bereziak) arabera gogorragoak ala leunagoak izan daitezkeen arren.

Emozioen ibilbideetan, oinazea, beldurra, amorrua, gorrotoa, mendekua, inpotentzia, tristura eta hutsunea⁹, besteak beste, gertaeraren ondoren ere presente jarraitzen duten emozio gisa deskribatu ziren, itxaropena eta maitasunarekin batera. Senitartekoei, egiaren eta justiziaren bila ia egunero egiten dituzten jarduerak ere gogobetetasuna eta poza ematen diete. Pertsona maitatua gogoratzea maitasun sakona eta harrotasuna sentitzea ere bada. Batzuetan, malkoak eta barrea nahasten dira, eta poz handi baten ondoren tristura sakona –eta alderantziz– sentitzen da. Maitasuna eta gorrotoa, poza eta tristura ez dira egoera kontrajarriak; aitzitik, bata zein bestea ezinbestekoak dira onartuak eta gorputzuak izateko.

Gorputzen kartografiak zehatz aztertu nituenean, ohartu nintzen guztietan mina identifikatzen eta kokatzen zela gorputzean. Eta oinazearen gertutasun horrek hainbat gauza ulertzen lagundu zidan. Lehenengoa, jendarte gisa sufrimendura ohitu garela, eta pentsatzeko modu kartesiar eta dikotomikoak gure gorputzei “entzutea” eragozten digu. Ohitze horretan sartzen dira subjektu biktimizatuak ere, eta, ondorioz, ni neu ere bai. Kolonbiakoa bezalako testuinguruetan, sufrimendu soziala ohikoa bihurtu da, eta barneratu egin da *habitus emozional moderno/kolonial eta patriarkal hegemonikoaren*¹⁰ parte gisa, indarkeria-historia luzatuaren antzeko sentitzeko modu espezifikoak eraginez.

Ikerketari esker, *habitus* horren elementuetako batzuk identifikatzeaz eta ulertzeaz gain, ikusi ahal izan nuen nire historian nola adierazten zen eta subjektu biktimizatuek nola aurre egiten dioten eta eraldatzen duten, maitasunari, desberdintasunarekiko errespetuari, egiari, justiziarri eta demokraziari atxikiagoak diren harremanak eraikitzen lagunduz. Horrela, senitarteko horiek, beste kolonbiar batzuk ez bezala, indarkeriaren zirkulua hausten laguntzen dute.

Gorputzen kartografiak aztertzean ikusi nuen bigarren gauza izan zen subjektu biktimizatuek

⁸ Afektua energia mota bat bezala ulertzen da hemen, barrenetik irteten den indarra, gorputzek elkar ukitzen dutenean sortzen den boterea eta bizitzaren jario etengabearen eguneratzen den errealitatearen bitartekari diharduena (Massumi 2002).

⁹ Garrantzitsua da aipatzea, estatuaren eta paramilitarren indarkeria kasuetan, justizia-sistemaren zigorgabetasuna eta jendartearen zati handi baten ezezagutza ezaugarri berezi izanik, emozio horiek nonahiko bihurtzen direla.

¹⁰ Gouldek (2009) proposatu zuen *habitus emozional* kontzeptua berreskuratu dut azpimarratzeko Kolonbian emozioen kolonialitatean errotzen den *habitus emozional hegemoniko moderno-kolonial eta patriarkala* existitzen dela.

bidezko eskaera egiten diotela gizarteari. Wittgensteinek esaten du “min ematen du” adierazpidea ez dela egoera mental bat deskribatzeko baieztapen deklaratihoa (Das 2008). Aitzitik, erreklamazioa da, lengoaiaren jolasaren amaiera baino gehiago, haren hasiera adierazten duena. Horren ildoan, senitartekoek eskatzen dutena da entzunak eta aitortuak izatea; horixe da hein handi batean aintzat hartu ez dituen eta haien pertsona maiteei eragindako mina justifikatu ere egin duen gizarteari eskatzen diotena.

Hirugarrena da gorputza zauri bat dela, osatu beharra duen min baten adierazle sozialak diren orbain asko dituen zauria. Osatze hori gertatzeko, gorputza entzuten ikasi behar da, bakeranzko trantsizio prozesuetan ohikoa den osatzearen¹¹ ideia nagusi horretatik urrunago joan behar da, eta senitartekoek Kolonbiako jendarteari eman dizkioten dohain horiek ordaindu.

Kartografiak, eta ikerketak berak, oro har, gorputza beste modu batera begiratzera eraman ninduten. Alde batetik, gorputz holistikoa, *osotasun organikoa*, gogoa eta gorputza, biologikoa eta kulturala bereizi gabe dauden harreman-sarea; gogoa-“espiritua”-emozioak elkarri lotuta dauden eta gaixotasuna ere alderdi emozionalarekin lotuta dagoen sarea. Horrek, *gertaera afektiboak* eragiten dituen emozioak gorputzaren nahaste-sintomatan, nahigabe eta gaixotasunetan¹² gauzatzeko moduan du isla; bai eta senitartekoek indarkeriak euren eguneroko bizitzan dituen eraginak adierazteko eta kontatzeko moduan ere.

Gorputzari begiratzeko izan dudana beste modu bat pertsona maiteen artean eraikitzen den harreman-artekotasunetik izan da, materialtasun fisikotik eta subjektua izaki auto-barneratua delako ideiatik urrunago. Gorputzak ez du muga argirik; izan ere, materialtasun, denbora eta espaziotik harago, beste gorputz batzuekin lotuta dago. Gorputzen muga porotsua da. Senitartekoen egunerokotasunean jada ez dagoen pertsonak duen iraunkortasunean adierazi zen hori; heriotza harremanen amaiera delako ideia berrinterpretazioan; gorputzek besteen oinazearekin garatzen duten enpatian, eta sentitzen diren bihozkada eta intuizioetan.

Elkarrizketei eta bizitza-historiei esker, ikusi ahal izan zen zenbait subjektu biktimizaturentzat, euren senitartekoekin zer gertatzen ari zen jakin baino lehen sortu zela afektua, bai eta indarkeriazko gertaera gertatu aurretik ere. Hainbat senitartekok bihozkada gisako zerbait sentitu zuten, eta hainbat modutan adierazi ere: gorputzean sentsazio desatseginak sentitzea, gertaera “iragartzen” zuten ametsak, pentsamendu azalezinak eta/edo taupadak. Afektu-zirkulazio horrek mendebaldeko arrazionaltasun hegemonikoa gainditzen du; gorputza emozioekin eta pentsamenduarekin konektatzen du, eta gizakien arteko erlazioa gauzatzen du, hizkuntza-komunikazio eta presentzia fisikotik at.

¹¹ Nahiago dut oinazearen trasmutazioaz mintzatu. Osatze terminoa gaixorik dagoen pertsona bati erreferentzia egiteko erabil daiteke, gaixotu zuen hura osatu ahal izango balitz bezala.

¹² Ohikoa da seme-alabaren bat bortizki galdu duten emakume askok bularreko edo umetokiko minbizia garatzen dutela ikustea, eta aitak bihotzkoak jota, biriketako gaixotasunen edo buruko isuriaren ondorioz hiltzen direla. Aita eta ama batzuk, bai eta beste senitarteko batzuk ere, tristeziak jota hiltzen dira. Beste senitarteko batzuk digestio-sistemako arazoak garatzen dituzte; eta horiek, mendebaldekoak ez diren medikuntzaren ikuspegietatik ikusita, emozio sakonen metaketak eragindakotzat jotzen dira. Izan ere, medikuntzaren ikuspegi alternatiboak lantzen dituzten Kolonbiako zenbait psikologo eta doktore subjektu biktimizatuei indarkeriari aurre egiten laguntzen ari dira beste hurbilpen holistikoagoetatik, Txinako medikuntza, kasu. Kartografiatan ikusi ahal izan zen ere pertsona maitatu bat galtzeak eta zigorgabetasuna bere horretan mantentzeak eragindako inpaktu emozionalaren parte direla etengabeko depresio-egoerak. Gorputz osoa hartzen duen emozio mota bat gisa irudikatu zen hori. Elkarrizketetan eta bizitza-historiatan, indarkeriak euren eguneroko bizitzan duen ondorioetako bat aipatzeko eskatuta, batzuetan, eta zenbait kasuetan behin eta berriro, ohetik jaiki eta eguneroko errutinekin jarraitzeko sentitzen duten zailtasuna aipatu zuten senitartekoek.

3. Martxan zeharreko ikaskuntzak

Aurreko aurkikuntzez gain, emozioen araketak ekarri zizkidan eta ikerketaren dimentsio metodologiko eta etikoarekin eta elementu existentzial eta epistemologikoagoekin zerikusia duten bi ikaskuntza mota azpimarratu nahi ditut. Lehenengoari dagokionez, funtsezkoa iruditzen zait ikerketa guztien abiapuntua bestearen eta norberaren zaintzaren etika izatea. Horrek prozesu horietan zehar, bai ikerketan parte-hartzen dutenek bai guk geuk emozioak bizi ditugula onartzea dakar.

Horregatik da garrantzitsua aztergai ditugun subjektuek zer emozio mota pizten dizkiguten identifikatzea, emozio horietatik botere-harreman hierarkikoak berregitea saihestea eta indarkeria-testuinguruek eragin ohi dituzten emozioek (tristura, beldurra, etsipena) gure *gorputz holistikoak* ez itotzea zaintzea. Beste alde batetik, indarkeria eta pertsona maitatuen ausentzia bezalako gai sentiberak aztertzeak ikerketan parte hartzen duten pertsonen emozioekin arduraz jokatzeko dakar.

Ikertzaile ez ezik ikerketaren beraren subjektu ere banintzenez, konturatzen joan nintzen eragin emozional hori askoz gogorragoa zela; nire bizitzan oihartzun handia baitzuten pertsonen oinaze- eta ausentzia-historiek; hainbesteko indarra zuten, non sarritan, topaketak amaitzean, oso sentibera eta ahituta sentitzen bainintzen, oso indar gutxirekin.

Horren ondorioz, senitartekoekin egiten nituen jardueren hasieran eta amaieran erritual txikiak jarri nituen abian. Tailerrei, elkarrizketei eta bizitza-historiei ekitean, isiltasunean, argi garbian hartzen nuen babesa subjektu biktimizatuen emozioek eta energiak nigan halako eragin handirik eduki ez zezaten. Batzuetan isiltasunean, beste batzuetan senitartekoen ondoan ozen, elkarri eta gure pertsona maiteei iraganean gertatutakoa gogoratzeko eta orainean sentitzen eta pentsatzen genuena aztertzeako baimena eskatzeko gonbita luzatzen nuen¹³. Ariketa horiek tristura eta nekea arintzen lagundu zidaten, eta uste dut senitartekoek ere haiek zaintzeko modu gisa ulertu zutela.

Ikerketa-prozesuak ulertarazi zidan badirela egin behar ez diren galderak, badirela etetea beharrezkoa den momentuak, aurrean ditugun pertsonen isiluneak eta narrazio-biraketak errespetatzea eta ulertzea garrantzitsua dela, garrantzitsuagoa delako besteak sentitzen duena ikerketaren "arrakasta" baino. Zorritzarez, gauza horietako asko ibilian ikasten dira, prozesuan; baina badira kaltea aurreikusteko moduak ere, ikerketarako formazio-prozesuetan ikasi behar den zaintzaren etika garatuz.

Bigarren ikaskuntza motak zerikusi handiagoa dauka doktore-tesia garatzeak eragin zituen prozesu pertsonalekin, eta bereziki, emozioei, identitateak eraikitzeari, aldaketa subjektiboek eta biktimizazio esperientziari ekiteak. Ikerketak iraun zuen bitartean, dimentsio horiei eta horiek eguneroko bizimoduan eta bizi izandako indarkeria-ibilbidean dituzten eraginei buruzko kontzientzia biziagotzeko prozesua zeharkatu nuen. Senitartekoekin eta beste subjektu biktimizatuekin egindako elkarrizketei eta lan kolektiboari esker egiten nituen "aurkikuntzak" nire gorputzean bertan ere bizitzen nituen. Emozioei eta gorputzarekin eta haren egoera desberdinekin duten harremanei garrantzia emateak gorputzari entzuteko eta oinaze eta dolu prozesu intimoagoak bizitzeko gaitasuna eman zidan.

¹³ Hori funtsezkoa zen, bi arrazoirengatik. Bat, kritikoa naizelako subjektu biktimizatuek euren historiak besteen aurrean behin eta berriz errepikatu behar izate horrekin, horrek oinazea eragin eta beste emozio batzuk pitz ditzakeela kontuan hartu gabe. Eta bi, herri-jakintzaren arabera, hildakoengandik luzaroan negar egin edo pena sentitzen bada, ez zaie hildakoei atsedean hartzen uzten.

Gorputza entzuten hasteaz gain, inkontzientea ere entzuten hasi nintzen nolabait; emozionalitatearen bitartekaritza ez-arrazionala. Entzuteko gaitasun horretaz emozio sakonagoen kondentsazioaren isla ziren egoera zehatzetan jabetu nintzen. Idazketa-prozesuan mintzo den *gorputz holistikoa* hautematen hasi nintzen.

“Goiz hartan, Carrboron nengoen ohatila batean etzanda. Agian... nire tesia idaztera... itzuli nintzenetik akupuntura egiten ari nintzen laugarren aldia izango zen. Ezin nintzen erlaxatu. Egon ezinik hogeita hamar minutu eman ondoren, aurpegia altxatu eta izuak hartu ninduen. Terapeutari orratzak kentzeko eskatu nion. Nire gorputzean sartuta zeuden orratzek, irudi bat ez, aita torturatu zuteneko sentipena ekarri zidaten. Yoga egiten ari nintzela ere bizi izan nuen antzeko erreakziorik, gertatzen zenaz jabetu gabe. Terapeutak orratzak kendu zizkidanean, zer gertatzen zen galdetu zidan. Intuzioz banekien erantzuna zein zen. Nire gorputzaren bidez sentitzen eta gogoratzen dut. Gorputzaren bidez nire aitaren oinazearekiko enpatia garatu dut, eta ezagutza sortzen dut” (Gómez 2013).

Nire gogoia isilean jartzean, gorputzak eta inkontzienteak “hitz egiten dutela” ikasi nuen. Horrek eta beste senitarteko batzuen esperientziek lagundu zidaten ulertzen, goian aipatutako arlo fisikotik urrunago¹⁴, gorputzek elkarren artean eta elkarrekiko harreman sakona dutela; indarkeriaren ondorioak benetan sakonak eta iraupen luzekoak direla; eta oinazea biktima zuzenaren gorputzean ez ezik, haren senitartekoen gorputzean eta gorputz sozialean ere eragiten dela.

Gorputz holistikoak esaten zidan bazela nik aipatzen ez nuen zerbait, eta osatu nahi banuen, garrantzitsua zela horri ekitea. Memoriari eta osatzeari buruzko gogoetak sakontzen lagundu zidan, eta ahaztea ezinezkoa dela onartzen; hots, egiten duguna –nahita edo nahi gabe– modu batean edo bestean etengabe zelatatzen gaituzten oroitzapen mingarriak atsedenean jartzea dela¹⁵. Hori dela eta, herrialde eta norbanako gisa, ezin ditugu iraganeko aztarnak azaletik aztertu; aurrerago berriro oinazera itzultzeko arriskua baitago, beste emozio batzuetara itzultzeko arriskua; amorrua, esaterako, eta haren gauzatze eta ondorio ugarietara. Zauriak ahalik eta modurik onenean artatu behar dira; bai bizimodu arinagoa edukitzeko bai arnasaldi luzeko bake eraldatzailearen eraikuntzan aurrera egiteko.

Ikaskuntza intimo honetako hirugarren elementua emozioen eta lurraldearen arteko harremanarekin lotuta dago. Memoriaren azterketen arabera, oroimena erabat lotuta dago sentipenekin eta espazioarekin. Memoriaren eta lurraldearen arteko lotura horrek hautematen errazak ez diren emozio-egoerak sortzen ditu. Indarkeria gertatu zeneko lekuetara itzultzeak egoera emozional oso gogorrak pizten ditu. Pertsonak beste pertsona batzuekin batera osatzen gara, baina baita lurralde jakin baten arabera ere. Bizitza-sarea norbanakoen eta norbanakoen eta

¹⁴ Hori oso garrantzitsua da menderatzearen aurreko erresistentziaren ikuspuntutik, indarkeriak hautsi ezin duen lotura sendoa dagoelako, zaintza eta maitasun horizontalari dagokiona; eta horietan datza eraldaketa sozialaren indarretako bat, jendartea bera eraikitzeke eta bertan harremanak egituratzeko funtsezkoak direlako.

¹⁵ Gorputzaren kontzientzia honetan bereziki garrantzitsua izan zen Kolonbiarekiko distantzia, landa-lanari eta idazketa-prozesuari buruz gogoeta egiteko aukera. Egun haietan, biktimizazioaren esperientziaren beste alderdi batzuk ulertzea ahalbidetu zidan amets bat izan nuen. Lo eta ametsetan nengoela, beste amets bat izan nuen. Bigarren amets horretan, nire buruari galdetzen nion zergatik jarraitzen nuen kolonetik gaixorik, eta ezin nuen lo egin. Ondoren, nire ama agertzen zen, eta ni atsekabez negarrez nengoela, berak haxe esaten zuen: “nola da posible halako modu ankerrean tratatu izana?” (Gómez 2013). Esaldi horrekin nire aitaren hilketa aipatzen ari zen, nola hil zuten eta nola aurkitu zuten haren gorpua; eta nire buruari esaten nion ezin nuela kolona osatu ez lo sakon egin, ez eta osatze bidean aurrera egin aita hil zuten modu horri aurre egin arte. Aitaren gorputzkinak identifikatzeko ikusi nuen gorputz zatikatu haren irudi ikaragarri hark oso arrasto sakona utzi zuen nigan, eta atsedean ematea erabaki nuen bere momentuan.

espazio konkretu baten artean eraikitzen da. Horrela, lurraldea-gorputza ez ezik, lurraldea-lurralanda-hiria ere guztiz markatzen ditu indarkeriak. Lurralde horretako espazioekiko harremanak asaldatu egiten dira, batzuetan ustekabean, eta espazio horiek oinazea eragin dezaketen memoriak eta emozioak sortzen dituzte. Horretarako, funtsezkoa da lurraldea-gorputza eta lurraldea-lurra osatzeko (eraldatzeko) aurrera pausuak ematea. Indarkeriak suntsitu zituen zaintzan eta boterearen modu ez tradizioaletan oinarritutako harreman guztiak berriro lotu behar dira bake eraldatzailea eta, oro har, eraldaketa soziala lortzeko.

4. Ondorio irekiak

Indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan, ekintza sozial kolektiboan eta indarkeria bizi izan duten emakumeen eta gizonen politizazio-prozesuetan emozioen lanketarekin batera, gogoeta epistemologikoa (teorikoa eta metodologikoa) egin behar da, emozioen lanketa hori nola egin eta horrek ezagutzaren sorkuntzan eta ikertzailearengan izango dituen eraginak nolakoak izango diren jakiteko. Esperientzia horretan sufrimendu sozialaren adierazpenak eta emozioen rola zein izan den ere aztertu behar da, bai eta ikerketaren dimentsio etikoa zein den ere. Azken horri buruz, funtsezkoa da bestea eta norbera zaintzeko jardutea, dagoeneko eragindako oinazea handitzea saihesteko eta ikerketaren subjektu direnen ongizatea eragiteko.

Emozioak lantzea ez da eginkizun erraza. Ohituta gauden logozentrismoak emozioak ulertzeko bide guztiak oztopatzen ditu, eta honako arrisku hauen aurrean egon gaitzke: a) emozioak arrazionalizatzea, haien rola, indarra eta gertaera sozialen atzean dagoen indar emozionala bistatik galduz; eta b) emozionalki kontrolatua egongo den subjektu unibertsal bat eraikitzea proposatzea. Hori saihesteko gakoetako bat prozesu senti-pentsakorretan egon liteke; horietan arrazoiak eta emozioak orekatuta baitaude, eta sentitzeko gaitasuna mantentzen da emozioetan "kateatuta" geratu gabe; bai eta emakumeek eta gizonek sentitzen, pentsatzen eta egiten dutenaren kontzientzia eta onarpena handitzea eta arrazoi nagusiak besteekiko enpatia sentitzeko gaitasuna ilundu gabe pentsatzea ere. Horretarako, beraz, *modernitate/kolonialitate patriarkalaren habitus emozional hegemonikoa* borrokatu behar da. Feminismoek eta haien gogoeta epistemologiko eta metodologikoez, zalantzarik gabe, gakoak ematen dizkigute indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan emozioak nola aztertu eta *zaintzaz* nola ikertu jakiteko.

Bibliografía

AHMED, Sara (2004a): *The Cultural Politics of Emotion*, Routledge, Nueva York.

– (2004b): “Collective Feelings: Or, The Impressions Left by Others”, *Theory, Culture & Society*, 21(2), 25-42.

DAS, Veena (2008): *Sujetos del dolor, agentes de dignidad*, Universidad Nacional de Colombia, Bogotá.

FLAM, Helena eta Debra KING (arg.) (2005): *Emotions and Social Movements*, Routledge, Nueva York.

GÓMEZ, Diana (2011): *Dinámicas del movimiento feminista bogotano: vivencias de cuarto, salón y calle, historias de vida. 1970-1991*. Impresol Ediciones Limitadas, Bogotá.

– (2013): *Diario de campo*.

GOULD, Deborah (2009): *Moving Politics: Emotion and ACT UP's Fight against AIDS*, University of Chicago Press, Chicago.

KLEINMAN, Arthur eta Joan KLEINMAN (1996): “The Appeal of Experience; The Dismay of Images: Cultural Appropriations of Suffering in Our Times”, *Daedalus*, 125(1), 1–23.

LEAVITT, John (1996): “Meaning and Feeling in the Anthropology of Emotions”, *American Ethnologist*, 23(3), 514-39.

MASSUMI, Brian (2002): *Parables for the Virtual: Movement, Affect, Sensation*, Duke University Press, Durham.

MOORE, Barrington (1989): *La injusticia: bases sociales de la desobediencia y la rebelión*, UNAM, México.

OATLEY, Keith (2004): *Emotions: A Brief History*, Blackwell Publishers, Malden, AEB.

ROSALDO, Renato (1989): *Culture & Truth: The Remaking of Social Analysis*, Beacon Press Boston.

SMITH, Linda Tuhiwai (1999): *Decolonizing Methodologies: Research and Indigenous Peoples*, Zed Books, Nueva York.

EGILEENTZAKO ARAUAK

Jatorrizko lanak bidaltzea

Erredakzio Kontseiluak zehatz aztertuko ditu aldizkariak duen xedeari loturik bidaltzen dizkieten lan guztiak. Artikuluak argitaragabeak izango dira, beste hedabide batean argitaratu emateko inoiz aurkeztu gabeak.

Posta elektronikoko helbide honetara bidali beharko dira: hegoa@ehu.es. Posta elektronikokoaren bidez harremanetan jarriko gara artikulua sinatzen duen pertsona batekin (lehen egilearekin, berariaz bestelakorik adierazten ez bada), eta bidalitako lana hartu izanaren agiria igorriko diogu.

Aurkeztutako lanak ebaluatzea

Jasotako artikulua ebaluatzen hasteko, behar bezala bete beharko dira Hegoa Lan-koadernoaren ediziorako arau guztiak. Ebaluazioaren bidez, kalitate gehien duten lanak hautatuko dira, aldizkariaren izaera dela-eta jatorrizko lanen kopuru mugatua baizik ezin baita argitaratu. Prozesu horretan, Erredakzio Kontseiluak hasierako aukeraketa egingo du, eta Argitalpen Kontseiluko kide aditu batek edo kontseilu horrek izendatutako lagun batek berrikusketa egingo du gero. Azken kasuan, kanpoko beste aditu batzuek egin ahal izango dute berrikusketa. Erredakzio Kontseiluak artikuluen egileei jakinaraziko die testua onartu ala baztertu den, eta, era berean, berrikusi behar ote den.

Argitaratzeko arauak

Egileei berariaz eskatzen zaie arreta handiz berrikusi ditzaten testua eta erabilitako terminologia, eta alde batera utz ditzaten formulazio nahasgarriak eta espezializatuak den jargoia ere bai. Horrez gain, sexista ez den hizkera erabiltzea gomendatzen dugu.

Testua 12 zenbakiko Arial letra-rekin idatziko da, gehienez 50 orri izango ditu (DIN-A4 tamainakoak), eta orri bakoitzean 3.000 karaktere sartuko dira gehienez (espazioak ere barne hartuta), oharrak eta bibliografiako aipamenak aintzat hartu gabe. Oharrek ez dute 5 orri baino gehiago hartuko, eta aipamen bibliografiakoek, berriz, 7 orri. Oharrak orriaren oinaldean jarriko dira, eta zenbakituta joango dira, elkarren hurreneko zenbaki arabiarrekin. Testua doc (Microsoft Office Word) edo odt (OpenOffice Writer) formatuan aurkeztuko da.

Ez da ezer azpimarratuko, ez eta letra lodiz idatziko ere, izenburuetan izan ezik: izenburuak letra lodiz idatziko dira, 14 tamainan, eta 1., 1.1., 1.1.1., 2... eskemaren arabera zenbakituta. Testuko esaldi edo hitzen bat nabarmendu nahi izanez gero, letra etzanez idatziko da. Dezimalak idazteko, koma erabili beharko da beti.

Bidaltzen diren artikuluen lehenengo orrian, izenburuaren eta egilearen edo egileen aipamenaren ondoren, datu hauek azalduko dira: izena, abizenak, posta elektronikoa eta instituzioko datuak edo lantokia. Laburpen bat jasoko da, gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz; gehienez bost hitz gako hautatuko dira, artikulua edukia adierazgarri, eta horiek ere gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz jarriko dira.

Euskaraz edo ingelesez idatzita dauden testuei dagokienez, egileek berek aurkeztu beharko dute gaztelaniazko itzulpena.

Sartzen diren koadroak, irudiak, taulak eta mapak testuan ondo txertatu beharko dira, behar bezala ordenatuta, eta jatorrizko iturrien identifikazioa zehaztuta. Izenburu egokiak izango dituzte, edukia adierazgarri. Koloreak erabiliz gero, erabili gris eskala, eta bereizi lerroak sinbolo edo trazadura desberdinekin, aleak zuri-beltzean inprimatuko baitira. Hauek guztiak, gainera, pdf, xls (Microsoft Office Excel) edo ods (OpenOffice Calc) formatuetan bidali beharko dira bakoitza bere aldetik. Irudiekien batera, oinarriko datuak dituzten fitxategiak bidaliko dira.

Egileak egokitzen jotzen duenean, formula matematikoak zenbakituko ditu, zenbaki arabiarak erabiliz, kortxete artean jarrita formulen eskuinaldean. Formula matematikoek eta testuko gainerako sinbolo guztiak, pdf formatuan bidali beharko dira.

Aipamen bibliografiako testuan sartuko dira, parentesi artean, eta egilearen abizena, eta, jarraian (koma baten ondoren) argitalpen-urtea (a, b, c, eta abar bereizita, elkarren hurreneko ordenan, zaharrenek berrienera, egile beraren urte bereko lan bat baino gehiago aipatuz gero), eta, hala behar denean, orria adieraziko dira.

Adibidez:

(Keck eta Sikkink, 1998)

(Keck eta Sikkink, 1998; Dobbs et al., 1973)

Oharra: et al. erabili da hiru egile edo gehiago direnean.

(Goodhand, 2006: 103)

(FAO, 2009a: 11; 2010b: 4)

(Watkins eta Von Braun, 2003: 8-17; Oxfam, 2004: 10)

Lanaren amaieran, zerrenda bibliografiko osoa jarriko da, egileen araberrako hurrenkera alfabetikoan, eta ondoko formak erabiliz, artikulua aldizkarian, liburuan edo liburu bateko kapituluari atera den bereiziz. Hala behar denean, parentesi artean jarriko da lehen edizioaren edo jatorrizko bertsioren data.

Aldizkariako artikulua:

SCHIMDT, Vivien (2008): "La democracia en Europa", Papeles, 100, 87-108.

BUSH, Ray (2010): "Food Riots: Poverty, Power and Protest", Journal of Agrarian Change, 10(1), 119-129.

Liburua:

AGUILERA, Federico (2008): La nueva economía del agua, CIP-Ecosocial y Los libros de la catarata, Madrid.

LARRAÑAGA, Mertxe eta Yolanda Jubeto (arg.) (2011): La cooperación y el desarrollo humano local. Retos desde la equidad de género y la participación social, Hegoa, Bilbo.

Liburuko atala:

CHIAPPERO-MARTINETTI, Enrica (2003): "Unpaid work and household well-being", hemen: PICCHIO, Antonella (arg.): Unpaid Work and the Economy, Routledge, Londres, 122-156.

MINEAR, Larry (1999): "Learning the Lessons of Coordination", hemen: CAHILL, Kevin (arg.): A Framework for Survival. Health, Human Rights and Humanitarian Assistance in Conflicts and Disasters, Routledge, New York eta Londres, 298-316.

Webetik hartutako baliabideei dagokienez, behar diren datuak aipatuko dira, liburua, liburuko artikulua, aldizkaria edo egunkariako artikulua den kontuan hartuta. Argitalpen elektronikokoaren data eta aipua hartu zen eguna jasoko dira, parentesi artean, bai eta helbide elektronikoa edo url-a ere, < > ikurren artean, "hemen eskuragarri" esaldiaren atzetik. Adibidez:

NDF (2007): "Declaración de una misión del personal técnico del FMI en Nicaragua", hemen: Comunicado de Prensa, 07/93 zk., 2007ko maiatzaren 11 (2007ko abuztuaren 8an kontsultatua), hemen eskuragarri: <<http://www.imf.org/external/np/sec/pr/2007/esl/pr0793s.htm>>.

ELGA (2001): The DAC Guidelines: Helping Prevent Violent Conflict, Development Assistance Committee (DAC), Paris (2010eko irailaren 10ean kontsultatua), hemen eskuragarri: <<http://www.oecd.org/dataoecd/15/54/1886146.pdf>>

Sigla edo laburdura bat lehenengo aldiz erabiltzean, bere esanahi osoa adierazi beharko da eta, horren ondoren, parentesi artean, gero baliatuko den sigla edo laburdura jasoko da.

COPYRIGHT-AREN OHARRA

Hegoa Lan-koadernoak sailean argitaratzen diren artikulua guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratuko dira:



Reconocimiento-NoComercial- SinObrasDerivada 3.0 España

Orri honetan aurkituko dituzun agiriak Creative Commons lizentziaren babestuta daude.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Artikuluaren egileak edo egileek berariaz onartu beharko dute horrela. <http://www.ehu.es/ojs/index.php/hegoa>

LAN-KOADERNOAK
CUADERNOS DE TRABAJO
WORKING PAPERS

0. **Otra configuración de las relaciones Oeste-Este-Sur.** Samir Amin.
1. **Movimiento de Mujeres. Nuevo sujeto social emergente en América Latina y El Caribe.** Clara Murguialday.
2. **El patrimonio internacional y los retos del Sandinismo 1979-89.** Xabier Gorostiaga.
3. **Desarrollo, Subdesarrollo y Medio Ambiente.** Bob Sutcliffe.
4. **La Deuda Externa y los trabajadores.** Central Única de Trabajadores de Brasil.
5. **La estructura familiar afrocolombiana.** Berta Inés Perea.
6. **América Latina y la CEE: ¿De la separación al divorcio?** Joaquín Arriola y Koldo Unceta.
7. **Los nuevos internacionalismos.** Peter Waterman.
8. **Las transformaciones del sistema transnacional en el periodo de crisis.** Xoaquin Fernández.
9. **La carga de la Deuda Externa.** Bob Sutcliffe.
10. **Los EE. UU. en Centroamérica, 1980-1990. ¿Ayuda económica o seguridad nacional?** José Antonio Sanahuja.
11. **Desarrollo Humano: una valoración crítica del concepto y del índice.** Bob Sutcliffe.
12. **El imposible pasado y posible futuro del internacionalismo.** Peter Waterman.
13. **50 años de Bretton Woods: problemas e interrogantes de la economía mundial.** Koldo Unceta y Patxi Zabalo.
14. **El empleo femenino en las manufacturas para exportación de los países de reciente industrialización.** Idoe Zabala.
15. **Guerra y hambruna en África. Consideraciones sobre la Ayuda Humanitaria.** Karlos Pérez de Armiño.
16. **Cultura, Comunicación y Desarrollo. Algunos elementos para su análisis.** Juan Carlos Miguel de Bustos.
17. **Igualdad, Desarrollo y Paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres.** Itziar Hernández y Arantxa Rodríguez.
18. **Crisis económica y droga en la región andina.** Luis Guridi.
19. **Educación para el Desarrollo. El Espacio olvidado de la Cooperación.** Miguel Argibay, Gema Celorio y Juanjo Celorio.
20. **Un análisis de la desigualdad entre los hombres y las mujeres en Salud, Educación, Renta y Desarrollo.** Maria Casilda Laso de la Vega y Ana Marta Urrutia.
21. **Liberalización, Globalización y Sostenibilidad.** Roberto Bermejo Gómez de Segura.
Bibliografía Especializada en Medio Ambiente y Desarrollo. Centro de documentación Hegoa.
22. **El futuro del hambre. Población, alimentación y pobreza en las primeras décadas del siglo XXI.** Karlos Pérez de Armiño.
23. **Integración económica regional en África Subsahariana.** Eduardo Bidaurratzaga Aurre.
24. **Vulnerabilidad y Desastres. Causas estructurales y procesos de la crisis de África.** Karlos Pérez de Armiño.
25. **Políticas sociales aplicadas en América Latina. Análisis de la evolución de los paradigmas en las políticas sociales de América Latina en la década de los 90.** Iñaki Valencia.
26. **Equidad, bienestar y participación: bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro.** Alfonso Dubois.
27. **Justicia y reconciliación. El papel de la verdad y la justicia en la reconstrucción de sociedades fracturadas por la violencia.** Carlos Martín Beristain.
28. **La Organización Mundial de Comercio, paradigma de la globalización neoliberal.** Patxi Zabalo.
29. **La evaluación ex-post o de impacto. Un reto para la gestión de proyectos de cooperación internacional al desarrollo.** Lara González.
30. **Desarrollo y promoción de capacidades: luces y sombras de la cooperación técnica.** José Antonio Alonso.

- 31. A more or less unequal world? World income distribution in the 20th century.**
 ¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX. Bob Sutcliffe.
- 32. Munduko desbertasunak, gora ala behera? Munduko errentaren banaketa XX mendean.** Bob Sutcliffe.
 ¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX.
- 33. La vinculación ayuda humanitaria - cooperación al desarrollo. Objetivos, puesta en práctica y críticas.** Karlos Pérez de Armiño.
- 34. Cooperación internacional, construcción de la paz y democratización en el África Austral.** Eduardo Bidaurrezaga y Jokin Alberdi.
- 35. Nuevas tecnologías y participación política en tiempos de globalización.** Sara López, Gustavo Roig e Igor Sábada.
- 36. Nuevas tecnologías, educación y sociedad. Perspectivas críticas.** Ángeles Díez Rodríguez, Roberto Aparici y Alfonso Gutiérrez Martín.
- 37. Nuevas tecnologías de la comunicación para el Desarrollo Humano.** Alfonso Dubois y Juan José Cortés.
- 38. Apropiarse de Internet para el cambio social. Hacia un uso estratégico de las nuevas tecnologías por las organizaciones transnacionales de la sociedad civil.** Social Science Research Council.
- 39. La participación: estado de la cuestión.** Asier Blas, y Pedro Ibarra.
- 40. Crisis y gestión del sistema global. Paradojas y alternativas en la globalización.** Mariano Aguirre.
 ¿Hacia una política post-representativa? La participación en el siglo XXI. Jenny Pearce.
- 41. El Banco Mundial y su influencia en las mujeres y en las relaciones de género.** Idoye Zabala.
- 42. ¿Ser como Dinamarca? Una revisión de los debates sobre gobernanza y ayuda al desarrollo.** Miguel González Martín.
- 43. Los presupuestos con enfoque de género: una apuesta feminista a favor de la equidad en las políticas públicas.** Yolanda Jubeto.
 Los retos de la globalización y los intentos locales de crear presupuestos gubernamentales equitativos. Diane Elson.
- 44. Políticas Económicas y Sociales y Desarrollo Humano Local en América Latina. El caso de Venezuela.** Mikel de la Fuente Lavín, Roberto Viciano Pastor, Rubén Martínez Dalmau, Alberto Montero Soler, Josep Manel Busqueta Franco y Roberto Magallanes.
- 45. La salud como derecho y el rol social de los estados y de la comunidad donante ante el VIH/ SIDA: Un análisis crítico de la respuesta global a la pandemia.** Juan Garay.
 El virus de la Inmunodeficiencia Humana y sus Colaboradores. Bob Sutcliffe.
- 46. Capital social: ¿despolitización del desarrollo o posibilidad de una política más inclusiva desde lo local?** Javier Arellano Yanguas.
- 47. Temas sobre Gobernanza y Cooperación al Desarrollo.** Miguel González Martín, Alina Rocha Menocal, Verena Fritz, Mikel Barreda, Jokin Alberdi Bidaguren, Ana R. Alcalde, José María Larrú y Javier Arellano Yanguas.
- 48. Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharra.** Irantzu Mendia Azkue.
 Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz. Irantzu Mendia Azkue.
- 49. Microfinanzas y desarrollo: situación actual, debates y perspectivas.** Jorge Gutiérrez Goiria.
- 50. Las mujeres en la rehabilitación posbélica de Bosnia-Herzegovina: entre el olvido y la resistencia.** Irantzu Mendia Azkue.
- 51. La acción humanitaria como instrumento para la construcción de la paz. Herramientas, potencialidades y críticas.** Karlos Pérez de Armiño e Iker Zirion.
- 52. Menos es más: del desarrollo sostenible al decrecimiento sostenible.** Roberto Bermejo, Iñaki Arto, David Hoyos y Eneko Garmendia.
- 53. Regímenes de bienestar: Problemáticas y fortalezas en la búsqueda de la satisfacción vital de las personas.** Geoffrey Wood.
- 54. Genero-ekitate eta partaidetza, autonomia erkidegoen lankidetzetan.** María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.
 La incorporación de la participación y la equidad de género en las cooperaciones autonómicas. María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.

- 55. Hamar Urteko Euskal Lankidetzaren azterketa. Ekuador, Guatemala, Peru eta SEAD: 1998-2008.** Unai Villalba, Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
Análisis sobre Desarrollo Humano Local, equidad de género y participación de una década de Cooperación Vasca. Los casos de Ecuador, Guatemala, Perú y la RASD: 1998-2008. Unai Villalba, Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
- 56. Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna.** Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
El Desarrollo Humano Local: aportes desde la equidad de género. Mertxe Larrañaga, Yolanda Jubeto.
- 57. Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak.** Zesar Martinez, Beatriz Casado, Pedro Ibarra.
Movimientos sociales y procesos emancipadores. Zesar Martinez, Beatriz Casado, Pedro Ibarra.
- 58. Borrokalari ohien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuak ikuspegi feministatik.** iker zirion landaluze.
Los procesos de desarme, desmovilización y reintegración de excombatientes desde la perspectiva de género. iker zirion landaluze.
- 59. Trantsiziozko justizia: dilemak eta kritika feminista.** Irantzu Mendia Azkue.
Justicia transicional: dilemas y crítica feminista. Irantzu Mendia Azkue.
- 60. Acerca de opresiones, luchas y resistencias: movimientos sociales y procesos emancipadores.** Zesar Martinez y Beatriz Casado.
- 61. Distribución agroalimentaria: Impactos de las grandes empresas de comercialización y construcción de circuitos cortos como redes alimentarias alternativas.** Pepe Ruiz Osoro.
- 62. La evolución del vínculo entre seguridad y desarrollo. Un examen desde los estudios críticos de seguridad.** Angie A. Larenas Álvarez.
- 63. Los movimientos sociales globales en América Latina y el Caribe. El caso del consejo de movimientos sociales del ALBA-TCP.** Unai Vázquez Puente Casado.
- 64. Herrien nazioarteko ituna, enpresa transnaziionalen kontrolerako. Gizarte-mugimenduetan eta nazioarteko elkartasunean oinarritutako apustua.** Juan Hernández Zubizarreta, Erika González, Pedro Ramiro.
Tratado internacional de los pueblos para el control de las empresas transnacionales. Una apuesta desde los movimientos sociales y la solidaridad internacional. Juan Hernández Zubizarreta, Erika González, Pedro Ramiro.
- 65. Derechos humanos y cooperación internacional para el desarrollo en América Latina: crónica de una relación conflictiva.** Asier Martínez de Bringas.
- 66. Significado y alcance de la cooperación descentralizada. Un análisis del valor añadido y de la aportación específica de las CC.AA. del estado español.** Koldo Unceta y Irati Labaien.
- 67. Ikerkuntza feministarako metodologia eta epistemologiari buruzko gogoetak.** Barbara Biglia, Ochy Curiel eta Mari Luz Esteban.
- 68. La Nueva Cultura del Agua, el camino hacia una gestión sostenible Causas e impactos de la crisis global del agua.** Ruth Pérez Lázaro.
- 68. La Nueva Cultura del Agua, el camino hacia una gestión sostenible Causas e impactos de la crisis global del agua.** Ruth Pérez Lázaro.
- 69. Desarrollo humano y cultura. Un análisis de la lógica cultural del PNUD en términos de poder.** Juan Telleria.
- 70. La Política de Cooperación al Desarrollo del Gobierno de Canarias: un análisis de su gestión en las últimas décadas.** María José Martínez Herrero, Enrique Venegas Sánchez.
- 71. Análisis transdisciplinar del modelo ferroviario de alta velocidad: el proyecto de Nueva Red Ferroviaria para el País Vasco.** Iñaki Antigüedad, Roberto Bermejo, David Hoyos, Germà Bel, Gorka Bueno, Iñigo Capellán-Pérez, Izaro Gorostidi, Iñaki Barcena, Josu Larrinaga.
- Nº extraordinario**
Alternativas para dismantlar el poder corporativo. Recomendaciones para gobiernos, movimientos y ciudadanía. Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate.
Alternatives for dismantling corporate power Recommendations for governments, social movements and citizens at large. Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate.
- 72. Civil resistance processes in the international security map. Characteristics, debates, and critique.** Itziar Mujika Chao.

- 73. Homofobia de Estado y diversidad sexual en África. *Relato de una lucha*.** Aimar Rubio Llona.
- 74. España, de emisora a receptora de flujos migratorios. El caso de la Comunidad Autónoma de Euskadi.** Amaia Garcia-Azpuru.
- 75. Comercialización agroecológica: un sistema de indicadores para transitar hacia la soberanía alimentaria.** Mirene Begiristain Zubillaga.
- 76. La regulación del comercio internacional de productos agrícolas y textiles y sus efectos en los países del Sur.** Efren Areskurrinaga Mirandona.
- 77. Reforma Fiscal Ecológica: hacia la redistribución y el gravamen de los recursos y la energía.** Jesús Olea Ogando.
- 78. El impacto del asociacionismo en el empoderamiento de las mujeres y de su comunidad. Los Centros de Madres de Dajabón (República Dominicana).** Paloma Martínez Macías.
- 79. Ikerketa feministaren ikuspegiak eta askapenerako ekarpenak.** Martha Patricia Castañeda Salgado.
Emozioak, epistemologia eta ekintza kolektiboa indarkeria sozio-politikoko testuinguruetan. Ikerketa feministaren esperientzia bati buruzko gogoeta laburra. Diana Marcela Gómez Correal.